



BERRIZKO JAIK / 13



Jaurlaritzako debekuak horrela aginduta, behirik eta idi probarik bako sanblasak aurtan / 8



Durangoko guraso taldea: "Leku itxi eta epel bat eskatzen dugu umeak bertan jolastu daitezen" / 4



'Jonkass' abeslariak debuteko 'Dam' diskoa aurkeztuko du Zornotzan, Musikagaz Fest jaialdian / 17



TXAPELDUN HANDI BATEN AGURRA

Gurutze Fradesek ibilbide profesionala utzi du. Urteetan erreferente nagusietariko bat izan da distantzia luzean. Lau Ironman irabazi ditu. / 2-3

ATE IREKIAK

@landakoeskolapublikoa

Urtarrilak 21 17:00etan
Urtarrilak 24 11:00etan

Aurrematrikulazioa
Otsailaren 2tik 13ra

LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA
Hazi, hezi, hegan egin

landakoeskola.org • 944 280 174



Joseba Derteano IURRETA

Gurutze Frades (Iurreta, 1981) goi mailako atleta izan da urte askoan. Prestakuntza etengabe eta gogorrak lorpen handiak ekarri dizkio, baina txanponak beste alde bat ere izan du: arlo pertsonalean egin behar izan duen sakrifizioa. Eliteko triatloia uzteko erabakiari eta etorkizunari buruz galdetu, eta bere ibilbide oparoa errepasatu dugu beragaz.

Noiz konturatu zinen triatloiko bizitza profesionala azkenera heltzen zebilela? Momentu konkreturen bat dago ala apurka gertatu da?

Alde batetik, nahiko naturala izan dela esango nuke, adingaitik. Adin batetik aurrera, badakizu lehenago edo geroago etorriko dela amaiera. Bestetik, oso urte konplexua izan da, egia esanda. Urte asko dira eta kontziente naiz goi mailan mantentzeak zer dakarren. Bai neuretzat eta baita nire ingurukoentzat ere. Eta denbora izan dut pentsatzeko. Energia beste nonbait ipintzeko gogo sortzen da. Oso urte gogorra izan da amaierakoa, asko kostatu zait berriro lehiatzea, baina, tira, hainbeste urte joan eta gero, prozesu natural baten modukoa izan da. Gorputzak beste erritmo bat behar duela sentitzen duzu.

Beraz, faktore bat baino gehiago izan da.

Adinaren faktorea kakotx artean esan beharko nuke, nire bizitzako denboraldirik onena egitetik nentorrelako, baina azkenaldian asko kostatzen zitzaidan. Azkenean ere maila onean ibili naiz, baina kostu handiaren truke: fisikoki, emozionalki, bidaiatzea geroago eta gehiago kostatzen da, hain denboraldi luzeak prestatzea, sakrifizioa... Motxila geroago eta astunagoa zen eta denak gehiago eragiten du zure inguruan eta ingurukoengan. Horrez gainera, denbora gutxiren barruan aita hil zitzaidan eta ebakuntza bat izan nuen. Parentesi horretan erre-tiroa hartu nezakeen, "dagoneko egin dut egin beharrekoa" pentsatuta, baina erreku-peratu eta berriro lehiatu gura nuen. Zure ibilbideari erreperidean esan gura zenion agur.

Bai, azken batean kirolaria naiz eta nire gorputza erreku-peratuta zegoela sentitu gura nuen agur esan aurretik.

"Azkenean ere maila onean ibili naiz, baina kostu handiaren truke"

GURUTZE FRADES LARRALDE TRIATLETA

Elitean emandako ia hamarkada bietan goi mailako palmaresa pilatu eta errekor bat baino gehiago ezarri eta gero, triatloilari iurretarra kirol profesionaletik erretiratu da



Gurutze Fradesek 19 urte eman ditu triatloian, eurretari 14 profesional. GURUTZE FRADES

Aurrera begira, zer asmo duzu? Pistaren bat eman dezakezu?

Egia esanda, ez daukat argi nondik joko dudana. Oraingoz atseden hartzen nabil.

Zure ibilbidea distantzia luzeko lasterketek markatu dute. Zure lehenengo ironman erdia 2009an lehiatu zenuen. Lasterketa hori mugarri izan zen zure ibilbidean? Distantziak apur bat igotzen hasi nintzen sasoi hartan: esprinta lehenengo, distantzia olinpikoa ondoren... eta 2009an aipatu duzun Ironman erdia egin nuen. Distantzia luzeko

"NIRE BIZITZA KONAREN INGURUAN BIRATU DA. LORPENAK EKARRI DIZKIT, BAINA HUSTU EGIN NAU"

"INOIZ EZ DUT LESIORIK IZAN. PROIEKTU BAT BESTEAREKIN LOTU DUT ETENGABE"

lasterketak egiten hasi nintzen, arlo horretako jende gehiago ezagutzen hasi nintzen: kirolariak, klubak, txapelketak... eta triatleta legez gehiago entrenatzen hasi nintzen. Kontua serioago hartu nuen eta neure burua triatleta legez ikusten hasi nintzen. Hurrengo jautzia 2011 amaieran eman nuen, Espainiako Distantzia Luzeko txapelketa irabazita. Ordura arte triatloia beste lan batez uztartzen nuen. Baina 2012tik aurrera triatloi profesionalaren aldeko apustua egin

nuen. Nire ogibide bihurtzen ahalegindu nintzen. Gero, urtero hobetzen joan nintzen. Triatloia nahiko kirol berria da beste batzuekin alderatuta, eta esan daiteke triatloiko kirol maila urtetik urtera handitzen joan den neurrian neure maila hobetzen joan naizela. Nire gorputzak dena eta gehiago baimendu dit, inoiz ere ez dut lesiorik izan eta. Azken unera arte ez dut geldialdirik egin eta proiektu bat beste batez lotu dut etengabe. Neurri batean, horrexegaitik amaitu dut hain hustuta. Hainbeste urtean geratu barik, oso intentsoa izan da. Baina horrek poza eta harrotasuna ere ematen dizkit.

Lau Ironman irabazi dituzu: Vichy Frantzia, Cozumel birritan Mexikon eta Gasteizkoa. Zein da garaipenik esanguratsuena zuretzat?

Ez nuke bat aukeratu. Denek dute zeozer berezia. Vichy berezia izan zen lehenengoa izan zelako eta Ironmaneko munduko txapelketara sailkatu nintzen. Gainera, beste gauza batez ere izan zen berezia: onenen artean nengoela sinetsarazi zidan. Sailkapenean ondo kokatu nintzen eta neure buruarengan konfiantza handiagoa hartu nuen. Cozumelko garaipenak hainbat arrazoigaitik dira bereziak. Batetik, aurreko urtean nire markarik onena eginda bigarren geratu nintzen, eta pentsatu nuen "nire onena emanda bigarren geratu banaiz, inoiz ere ez dut irabaziko". Bada, hurrengo urtean irabazi egin nuen, lehenengoz, eta ondoren beste garaipen bat heldu zen. Bestetik, Cozumel irlara sarritan joan naiz Hawaiiko munduko txapelketa prestatzera, jende askok ezagutzen nau han, asko maite naute, eta etxean irabaztea lakoa izan zen. Gasteizkoari buruz zer esan! Etxean lorturiko garaipenak beti dira bereziak. Jendeak nire ibilbidea ezagutzen zuen, baina euren aurrean irabaztea eta zaleen berotasuna sentitzea sentsazio deskribaezina da.

'Kona' berba esaten badizut zer esan gura du zuretzat?

Munduko txapelketa. Nire bizitza Konaren inguruan biratu da 2015etik. Distantzia luzea egingo nuela erabaki nuenetik, nire egutegia, nire etxea, nire bikotekidea, nire bizitza... dena helburu horri begira antolatu dut.

Orain, pentsatzen dudanean, amodio-gorrito apur bat sentitzen dut. Izan ere, energia handia eskatu dit, urte asko eman dut hor. Lorpen handiak ekarri dizkit, baina hustu egin nau indar aldetik. Ahalegin handia izan da eta ez nirea bakarrik, baita nire ingurukoena ere. Konara joan izan naiz jakinda handik bueltan beste karrera bat egin behar nuela hurrengo urterako sailkatzeko. Oso kirol exigentea da. Entrenamendu asko egin dut altueran, Sierra Nevada esaterako, eta horrek etxetik kanpora egotea dakar. Baina merezi izan duela uste dut. Kirol honek nire onena atera didala sentitzen dut.

Askotan parte hartu duzu munduko txapelketan. Emaizarik onena ST. Georgen (AEB) lorturiko bederatzigarren postua da. Urte hartan han lehiatu zen, pandemiaren ondorioz. Munduko txapelketan oroitzen onena utzi dizun lasterketa da? Zein oroitzen datorkizu burura?

Zapore ezberdinak dira. Konako lehenengo urtean txarto amaitu nuen, baina gero ikusi nuen hamar onenen artean egon nintekeela. Ondorengo txapelketa batzuetan aho zapore onagaz amaitu nuen, baina kanpora begira emaitza da saltzen dena. Orduan, St. George-en lorturiko bederatzigarren postua esanguratsua izan zen. Urteak neramatzan "lortu dezaket" esaten, baina eliteko kirol profesionalan gauzak frogatu egin behar dira, eta emaitzak frogatu bat dira. Nire lanaren eta ingurukoaren justifikazio bat izan zen.

Zure lorpenen artean ondoko hau ere azpimarragarria da: Ironmanean zeu zara inoizko denborarik onena duen estatuko emakumea Ironmanean. Cozumelen izan zen: 08:31:12.

"JENDEA EMOZIONATU EGINDA NIGAZ. ESKERRAK EMAN GURA DITUT BABES HORRENGATIK"

"MEREZI IZAN DUELA USTE DUT. KIROL HONEK NIRE ONENA ATERA DIDALA SENTITZEN DUT"

Cozumelgo lasterketa horretan sentsaziorik onenak izan nituen, Hegoafrikakoagaz batera. Bero egiten zuen eta beroagaz denborak eskasagoak izaten dira, baina ni oso aklimatatuta nengoan irlara, eta, gainera, euria egin zuen. Baldintza egokiak ziren eta oso ondo sentitzen nintzen. Sufrimenduaz gozatu nuen, asko sufritzeko gai izan nintzen.

Esango nuke triatloi zale eta arloko komunikabideen artean bada-goela adostasun bat: Euskadin ez ezik Estatuan ere zeu izan zarela distantzia luzean egon den emakumezko triatletarik onena. Nola sentiarazten zaitu iritziz horrek?

Harro sentiarazten nau, jakina. Urte askoan konpromiso handia eskaini diot kirol honi eta baloratua sentitzeak poza ematen dit. Jendea emozionatu egin da nigaz eta nire ibilerei jarraitu diete. Elkarregaz egin dugu bidea. Horrek ni neu emozionatzen nau. Eta harritu egin nau erreferente izateak hainbeste jenderentzat, gizon, emakume zein profesionalentzat. Emozionantea eta harrigarria izan da. Eskerrak eman besterik ez dut babes horregatik.

Kirol ibilbide profesionala uzteko erabakia hartu duzunetik zer errekupeatu duzu? Igarriko zenuen alde egunerokotasunean.

Badaude gauza batzuk berreskuratzen ez direnak, denbora asko joan delako: lagunek seme-alabak dituzte, aita joan egin zait... Azken batean, denbora askoan egon naiz etxetik kanpora. Bizi-etapa ere aldatu dut, ia 45 urte ditudalako. Baina, batez ere, nire familiari egunerokoan kendutako denbora da errekupeatu ezin dena. **Triatloi profesionaletik erretiratzeak ez du esan gura lasterketatik erretiratuko zarenik. Ala bai? Zein helburu duzu etorkizunera begira?**

Ez daukat argi. Kirola egiten jarraituko dut, nire osasun fisiko eta mentalagatik. Baina triatloian jarraituko dudana ala ez, hori ez dakit. Oraingoan, atsedeen hartu eta ondo errekupeatu gura dut. Entrenamendu kargaren jaitziera planifikatu behar dut. Ezin da bat-batean utzi; apurka-apurka egin behar da, nire gorputza ordu askoan entrenatzera ohituta dagoelako eta bat-batean gelditzea txarra izan daitekeelako. Modu mailakatuan egin behar dut.

Palmaresa

Gurutze Fradesek palmares oparoa pilatu du bere ibilbidean. Hauak dira bere lorpenik esanguratsuenak.

IRONMANA MUNDUKO TXAPELKETA

- 9. postua: St George, 2021
- 15. postua: Kona, 2022
- 15. postua: Kona, 2019

IRONMAN PROBAK

- **Lau garaipen:** Vichy (Frantzia), 2015; Cozumel (Mexiko), 2022 eta 2023; Gasteiz 2023
- **Bigarren postuak (4):** Malaysia, 2015; Hego Afrika, 2019; Chattanooga (AEB), 2021; Cozumel (Mexiko), 2021

- **Hirugarren postuak (2):** Western Australia, 2019; Florianopolis (Brasil), 2016
- **19 bider TOP 10ean**

MUNDUKO TRIATLOI TXAPELKETA (ITU) DISTANTZIA LUZEAN

- **Hirugarren postua:** Ibiza, 2023
- **5 bider TOP 10ean**

ESPAINIAKO TRIATLOI TXAPELKETA

- **Lau bider txapeldun distantzia luzean:** Orihuela, 2011; Calella, 2012 eta 2013; Arrecife, 2014
- **Behin txapeldun distantzia erdian:** Posadas, 2013

EUSKADIKO TRIATLOI TXAPELKETA

- **Behin txapeldun distantzia luzean:** Zarautz, 2015
- **Behin txapeldun distantzia olinpikoan:** Durango, 2011

EUSKADIKO DUATLOI TXAPELKETA

- **Hiru bider txapeldun distantzia laburrean:** Durango, 2011, 2013 eta 2016
- **Hiru bider txapeldun esprint distantzian:** Ermua, 2012 eta 2013

LORPEN GEHIAGO

- **Espainiako errekorra emakumeetan Ironman distantzian:** Cozumel (Mexiko), 2021. Denbora: 08:31:12



2019an Cozumel Ironman irabazi zuen unea.



2023an Gasteizko Ironman irabazi zuen. ©FOTORUNNERS

"Umeak lehentasuntzat hartzea eskatzen dugu"

Durangoko guraso talde bat kexu da eguraldiak laguntzen ez duen egunetan ez dutelako "azpiegitura egokirik umeekin babesean egoteko edo haiei bularra emateko". Joan zen domekan, herriko familia ugari Ezkurdin batu zen udalari irtenbidea eskatzeko

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko guraso talde batek haxe eskatzen du: "Azarotik maiatzera bitartean, umeek kaleran jolastu ahal izateko leku itxi eta epel bat izatea". Kexu dira etxetik kanpora ez dutelako babesdun azpiegiturarik umeekin egoteko edo haiei bularra emateko. Hori eskatzeko, domekan elkarretaratzea egin zuten Ezkurdin.

Auzia ez da berria; izan ere, iazko urtarrilean guraso talde horrek Durangoko udalbatzara jo zuen politikariei Jolas Libreko Gunearen egutegia handitu zezaten eskatzeko. "Alderdi guztien babesa izan genuen", gogoratu du Nerea Elexpe amak, eta gaineratu du ordutik hona "beste behar batzuk ere" identifikatu dituztela, "tartean, eremua asteburu goizetan ere zabaltzea". Durangarrak zehaztu duenez, "oinarri-oinarritik" hasi ziren "borrokan", Jolas Libreko Gunetik. "Zerbitzu horrek denboran etenaldiak izaten dituela ikusi dugu, aste batzuetan erabilgarri dagoela, beste hile batean ez dagoela, Landako Guneko aktibitatearen arabera", azaldu du Elexpek. Lander Raya aita ere bat dator horregaz: "Landakok kalitatezko aisialdia eskaintzen du



Durangoko guraso talde bat, merkatu plazan.

umeentzat, gurasoentzat, mundu guztiarentzat. Baina udazkena eta negu erdi kalean ematen dugu". Horregaitik, etorkizun hurbilari begira, Jolas Libreko Guneko moduluak al baitik arinen aktibatzea eskatu dute. "Izan ere, igaro dira azoka, Gabonak, izotz pista, baina ez dakigu noiz berrekingo dioten Jolas Libreko Gunea. Urtarrilaren 19an zabaldu dezaketela diosku udalak, baina oraingoz ez dugu bermerik. Ez dugu ulertzen, modulu batzuk dagoeneko libre daude eta".

Ixone Rodriguez amak honako hau partekatu du: "Udalak merkatu plaza berritua ipini digu alternatiba legez, baina hori beste zerbaitearako dago pentsatuta. Erosketak egiteko, tabernan egoteko. Gainera, leku hotza da, hezea", esan du. "Irtenbideak eskatzen ditugu, guri berdin digulako zer eta non. Haxe baino ez dugu gura: leku itxi eta epela umeentzat, eta alternatibak Landako zarratuta dagoenerako. Azken finean, herriko umeak lehentasuntzat hartzea eskatzen dugu".



Saharako umeak izurtzako aterpetxean, iazko udan. RIO DE ORO

Río de Oro Saharako umeak harreraren hartzeko familia bila

Elkarteak orain artekoak baino bost familia gehiago behar ditu uda honetako egonaldiari begira

Ekaitz Herrera DURANGO

Río de Oro harrera familiak topatzeko kanpaina hasi du, uda garaian Saharako umeak Durangaldeko etxeetan hartzeko. Elkartek jakinarazi duenez, aurtengo bost harrera familia berri behar dituzte: "Deialdi bat egiten diegu Durangaldeko eta inguruko familiei, parte hartu gura badute edo informazio gehiago jaso gura badute Gobernu Kanpoko Erakundeagaz hartu-emanetan ipini daitezten. Harrera egitea elkartasun keinua da, bizitzak aldatzen dituen eta herri sahararragazko elkartasun

loturak indartzen dituen", azaldu du elkartek. Era berean, honako hau gogorarazi dute: familiek ez dute aurretiko esperientziarik behar, elkartea bera arduratzen delako prozesu osoan zehar familiei laguntza eta arreta eskaintzeaz.


Udako egonaldiak osasun egoera hobetzen laguntzen die Saharako umei. Azterketa medikoak egiteko eta ingurune seguru eta osasungarriaz gozatzeko aukera eskaintzen die bi hilabetez. Interesdunak elkartegaz ipini daitezke hartu-emanetan: info@riodeoro.org eta 676108794.

Ruper Ordorika ere batu da 40 Minutu Rocken X. urteurrenera

Musikari oñatiarrak jaialdiaren bezperan emango du kontzertua, Plateruenean. Sarrerak salgai daude

Ekaitz Herrera DURANGO

40 Minutu Rock elkartasun jaialdia otsailaren 21ean bueltatuko da Landako Gunera, baina bezperarako ekitaldi berezia antolatuko dute, otsailaren 20an Ruper Ordorikak kontzertu berezia emango du eta Platerueneko ekitaldian. Ekitaldia 19:30ean hasiko da, baina 19:00etan zabalduko dituzte aretoko ateak. Behin ekitaldia amaituta, Ruper Ordorika 21:00etan igoko da agertokira bere bandagaz. Sarrera fisikoak Intxaurren erosi daitezke; Internet bidezkoak, Bibe atarian.



Ruper Ordorika. RUPER ORDORIKA

San Inazioko parkea estaliko dute

Durangoko Udala San Inazio auzoko txintxaunak eraberritzen hasiko da hile honetan. Aldaketarik azpimarragarrienetariko bat parkea estaltzea izango da. 350 metro karratuko azalera estaliko dute guztira. Egiturak zurezko arkupe bat izango du, polikarbonato trinkozko geruzaduna. Horri eskerrak, jolasgunea euria denean ere

erabili ahal izango dela iragarri du udalak.

Era berean, zutabeak hormigoiz armatuz zimendatuko dituzte, eta, estalkia egiteaz gainera, moldaketak egingo dituzte jolasetan. Gaur egungo txintxaunetariko hiru mantenduko dituzte, eta horiei lau jolas berri gehituko dizkiete. Parkeko zoladura ere guztiz berrituko dute: lodiera desberdineko

kautxua ipiniko dute. Halaber, alboko kirol kantxako zorua berrituko dute, irristagarritasuna gutxitzeko. Hesiak ipiniko dituzte perimetroan, eta ping-pong mahaiak berrituko dituzte. Udalak 330.000 euroko inbertsioa egingo du guztira. Lanek bost hilabete iraungo dute. "Jarduera hau udalak Durangoko parke eta berdeguneen etengabeko hobekuntzagaz duen konpromisoaren barruan kokatzen da", esan du udalak.



Pentsiodunen mobilizazio bat, Durango. DURANGOKO PENTSIODUNAK

Zortzi urte "pentsio duin eta publikoak" kalean defendatzen

Durangoko pentsiodunek manifestazioa egingo dute astelehenean. 12:00etan irtengo da, udal plazatik

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko pentsiodunen mugimenduak manifestazioa egingo du astelehenean, hilak 19, "pentsio publiko eta duinen sistema" aldarrikatzeko. Mugimenduak bere urteurrenean egingo du mobilizazioa, 2018an astelehenero kalera irteten hasi zirenetik zortzi urtera. Manifestazioa 12:00etan irtengo da, udal plazatik. Madalenako plaza izango du helmuga.

Mugimenduak zortzi urte haueko balantzea egin du. Gogoratu dutenez, "mobilizazio masiboek eskerrak" lortu zuten, 2018an, %0,25eko "igoera barregarria"

indargabetzea, eta akordura eka- rri dute harrezkero astelehenero irten direla kalera pentsioetako genero-arrakala amaitu eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea eskatzeko, besteak beste. Horrez gainera, EAEko pentsiodunek Herri Ekimen Legegilea helarazi zioten Eusko Legebiltzarrari. 145.142 herritarrek babestu zuten egitasmoa, baina EAJk, PSE-EEk, PPK eta Voxek gaia ez eztabaidatzea erabaki zuten udazkenean. Pentsiodunek "borrokan" jarraitu gura dute, gutxieneko pentsioak "helburu ukaezina" direla iritzita.

LABUR-LABUR

Hobekuntzak Landakon eta Zabalaran

Durangoko Udalak eta Hezkuntza Sailak eredu pedagogiko berrietara egokituko dituzte Landako eta Zabalarra ikastetxeetako gela bi. Landakon urte biko umeen gela egokituko dute (47.973,38 euroko inbertsioa), eta Zabalaran hiru urtekoena (48.157,89 euro).

Kapitanena, lizitazio prozesuan

Durangoko Udalak lizitazio prozesua hasi du San Faustoko Kapitanena baserria eraberritzeko eta gizarte etxea atontzeko. Lizitazioa irabazten duen enpresak 15 hilabete izango ditu lanak egiteko.

Sanfaustoetako inbertsioa, argitara

Durangoko Udalak iazko sanfaustoetako gastuen banakatzea kalera- tu du. 443.594 euro erabili- ta antolatu zituen jaiak. Inbertsio nagusien artean Ezkurdiko kontzertuak (94.586 euro), Zezenak Dira (41.783) eta azpiegitura teknikoak egon ziren (135.506).

Tailerrak senide zaintzaileentzat

Mankomunitateak jarduera fisikoko tailer sorta antolatu du pertso- nen zainketek sortzen dituzten eragozpenak saihesteko. Bizkarreko mina arintzeko, erorketak prebenitzeko eta indarra lantzeko saioak egingo dituzte. Izen-emateak: 94 620 05 46 / 680 425 764

Zuhaitzen inbertsioa "ezkutatzea" egotzi diote Durangoko gobernu taldeari

"Iragarritako 161.844 euroetatik 20.777 baino ez dira benetan zuhaitzetara bideratuko", esan du EH Bilduk

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko EH Bilduk Zumar kaleko zuhaitzen inbertsioa "ezkutatzea" egotzi dio gobernu taldeari. Koalizioaren berbetan, durangarrek zuhaitz gehiago landatzea erabaki zuten 2024ko parte hartze bidezko aurrekon-

tuetan. Alabaina, aurreikusitako diru atala "kontrako no- rabidean doan jarduketa urba- nistikoa finantzatzeko" erabili- tzea leporatu diote gobernu taldeari. EH Bilduren esanetan, "iragarritako 161.844 euroetatik 20.777 baino ez dira benetan

zuhaitzetara bideratuko, hau da, erabakitakoaren %18 bes- terik ez". Gainerako aurrekon- tua "inolako arriskurik ez duten zuhaitzak botatzera eta ondo dagoen espaloia berrur- banizatzen" bideratuko dela kritikatu dute.

"Gardentasun eske"

Herritarrek "gardentasuna, koherentzia eta kolektiboki hartutako erabakiekiko erres- petua" merezi dutela adierazi du koalizio subiranistak.



Curt Nicolín Gymnasiet-eko eta CFP Zornotza LHII-ko ikasleak Siemens Energy enpresara egindako bisitan.

Zornotza LHII: bide propioa nazioartekotze digital, sortzaile eta inklusibo baterantz

2025-2026 ikasturtean, CFP Zornotza LHII, Europar Batasunak kofinantzatutako Erasmus+ programaren esparruan, nazioartekotzeko gure bide propioari ekin diogu berriro

Zornotza LHII Helburuak

Erdi-mailako zikloi dagokien proiektuan, ikasleengan etekin handiko metodologien erabili- ra sustatzea, ikastetxearen di- gitalizazio-estrategia ebaluatzea eta aniztasunarekiko arreta hobetzea ahalbidetuko duten ezagutzak eskuratzea izan di- tugu helburu.

Garatutako mugikortasun programak eta emaitzak

Helburu horrekin, nazioarteko bi mugikortasun programa ga- ratu dira. Lehenengoa Finspång-eko (Suedia) Curt Nicolín Gym- nasiet zentroan izan zen, eta Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak, Mantentze Lan Elek- tromekanikoa eta Soldadura

eta Galdaragintza zikloetako hamar ikasle parte hartu zuten, bi irakasle lagunduta. Tokiko ikasleekin elkarlanean, Hilma af Klint artistaren obran inspi- ratutako metalezko eskulturak batera sortu ziren, ikaskuntza kooperatiboa, sormena eta kul- turen arteko trukea sustatuz.

Bigarren mugikortasuna Dres- dengo (Alemania) WBS Schulen zentroan egin zen, eta irakasleei eta irakasle ez diren langileei zuzenduta egon zen. Egonaldi horretan, bertatik bertara eza- gutu ahal izan zen zentro ho- rretan ezarritako digitaliza- zio-estrategia. Era berean, bi- lera bat egin zen Dresdengo Udalarekin, UNESCOren Ikas- kuntzarako Hirien Munduko Sareko kide den hiriarekin,

eta haren ekarpenek gure hez- kuntza-testuinguruari aplika- dakizkiokeen erreferentzia baliotsuak eskaini dizkigute inklusioaren, bizialdi osoko ikaskuntzaren eta iraunkorta- sunaren arloan.

Etorkizuna

Esperientzia hauek oso onura- garriak eta aberasgarriak izan dira, eta bereziki motibagarriak ikasleentz iritziz. Ikastetxeak Europako sareekin duen kon- promisoa berresten dute, eta beste bi ikastetxeetako ikasleentz irakasleentz bisitarekin ja- rraituko dute, lanbide-heziketa irekiagoa, inklusiboagoa eta nazioartekoagoa lortzera bide- ratutako proiektu partekatutako bat sendotuz.

Metal Groupeko langileak borrokan

Fabrika ekoizpenik barik dago iazko azaro amaieratik, eta beharginek lanik egin ezinda eman dute abendua; langileek mobilizazioak hasi dituzte ordainak eskatzeko; adibidez, aurreko barikuan manifestazioa egin zuten Berrizko kale nagusietatik

Ekaitz Herrera BERRIZ / ABADIÑO

Lebarioko Metal Group enpresako langileek iazko urtea amaitu zuten moduan hasi dute aurtengoa. Lantegia ekoizpenik barik dago azaro amaieratik, eta lanik egin ezinda amaitu dute urtea. Horrez gainera, 48 langile kaleratze egoeran daude. "Akordio bat lortu gura dugu enpresaren iraungitzeari dagokionez, baina oraindik ez da gerturazterik edo elkar ulertzerik egon", azaldu zuen Jose Cid CCOO sindikatuko ordezkariak joan zen barikuan egindako mobilizazioaren ondoren. Hain zuzen ere, langileek "akordiorako borondaterik eza" leporatu diote enpresari. Jarrera hori salatzeke eta beharginei zor dizkieten ordainak eskatzeko mobilizatzen hasi dira langileak. Abenduan elkarretaratzeak egin zituzten Berrizen eta Durangon, eta orain artean egindako azken mobilizazioa Berrizko kaleak zeharkatu zituen manifestazioa izan da.



Manifestazioak Berrizko kale nagusiak zeharkatu zituen.

Cid ordezkari sindikalaren berbetan, lan gatazkaren puntu nagusietariko bat ordaindu bako soldatak dira. "Langileok aparteko soldata jaso genuen abenduan, baina abenduko nomina kobratu barik gaude oraindik",

argitu zuen. "Zuzendaritzak diosku ez dutela dirurik, Volkswagenek zor duen dirua bueltatu zain dagoelako", gaineratu zuen. Etxe bereko Legutioko (Araba) lantegian 91 kaleratze egitekoak dira.



Astelehenerako elkarretaratzea.

"Esandakoa betetzeko" eskatu diote berriro Osakidetzari

Pentsiodunek Berrizko anbulatorioan batzen jarraitzen dute astelehenero, hiru sendagile egotea eskatzeko

Aritz Maldonado BERRIZ

Berrizko pentsiodunak udaletxetik anbulatorioa jaisten ari dira berriro, protesta legeaz. Azken urte bietan mobilizazio ugari egin dute eta horietariko asko Osakidetzari konpromiso bat hartu dezan eskatzeko izan dira: Berrizko anbulatorioan zeuden hiru medikuak mantentzea. "Osakidetza ez du agindutakoa bete. Batzuetan hiru mediku egoten dira, bai, baina ez da bermatzen beti hala izatea. Eta horrek eragina du zerbitzuan, jakina", azaldu zuten astelehenean egindako elkarretaratzean. "Behin-behine-

ko egoera dela diote, baina gero ez dute ezer konpontzen", gehitu zuten. Inguruko beste herri batzuen berri eman eta hango egoerak salatzeke ere baliatu zuten aukera; adibidez, Elorrioko anbulatorioaren kasua aipatu zuten.

Egoera aldatu ezean, mobilizazioekin jarraitzeke asmoa agertu zuten bertaratuek. "Euskadiko osasun sistema ona dela saldu gura digute, baina jada ez da horrela. Ezin diogu gaixoak artatzeari utzi; orain hamabost urteko egoera berreskuratu behar dugu, gutxienez", azpimarratu zuten.

Zubikurtzeko eta Zubipunteko pasabidea hobetuko dute

Lurpeko pasabide hau eraberritzen hasi dira; euria egiten duenean ur putzuak saihestea dute helburu



Pasabideko segurtasuna hobetzea da helburua.

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udala Zubikurtze eta Zubipunte auzoak batzen dituen lurpeko pasabidea eraberritzen hasi da; euria egiten duenean ur putzuak saihesteko, bertan pilatzen den ura ateratzen lagunduko duen drainatze sistema berria ipiniko dute bertan. "Ibaizabal ibaiaren maila igotzen denean, pasabide horretako ura ezin da ondo atera. Sistema berriak ponpa automatikoak izango ditu pasabidean pilatutako euri-ura azkar ateratzeko", azaldu dute udal iturriek. Lanek hile bi irautea aurreikusten du udalak. 75.000 euroko aurrekontua dute horietarako. Lanek errepide mozketak eta aldaketak eragin ditzakete. Hori dela eta, udalak "pazientzia eta laguntza" eskatu dizkie bizilagunei.

Berdindu zerbitzuaren saio presentziala Elorrion

Berdinduk LGTBI+ pertsonentzako saio presentziala eskainiko du urtarilaren 20an, 11:00etatik 17:00etara

A. M. ELORRIO

Elorrioko Udalaren Berdintasun Sailak jakinarazi duenez, Berdindu zerbitzuak arreta presentziala eskainiko du datorren martitzenean, urtarilak 20, Iturri kultur etxeko erakusketa aretoan; saioa 11:00etan hasiko da eta 17:00ak arte iraungo du. "Identitateari eta orientazio sexualari, LGTBIQ+ legediari, seme-alabatasunari, aniztasun sexualean hezteari eta gai horiekin lotutako bestelako zalantzei buruzko informazioa jaso gura dutenentzat da arreta hau. Zerbitzuak espazio

seguru, profesional eta konfidentziala eskaintzen du, eta arreta zuzena eta pertsonalizatua bermatzen du", azaldu dute udal iturriek. Informazio gehiagorako 900 840 128 telefono zenbakira (Berdindu) deitu daiteke. Berdindu zerbitzua Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekimena da eta LGTBI+ pertsonentzako arreta, informazio eta laguntza zerbitzuaren barruan kokatzen da. Jaurlaritzak herritarrei baliabideak eskaintzeko eta haiengana hurbiltzeko helburuagaz ipini zuen martxan zerbitzua.



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**

BIZITZEKO HEZI



ESKAINTZA

0 urtetik 18
urtera bitarteko
hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta
eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuen
ziurtagiria.
Bertokoa,
ekologikoa eta
sasoikoa.

Matrikulazio epea:
otsailaren 2tik 13ra

Galtzaretza Kalea, 13 · 48200 Durango, Bizkaia
946 20 08 22 · kurutziagaikastola.eus



**Ateak
zabaltzeko
jardunaldiak**

Urtarrilak 24 · 11:00etan

Behirik eta idi probarik bako San Blas azoka izango da aurtengoa

Eusko Jaurlaritzak ganadu azokak debekatu ditu otsailaren 26ra bitartean. San Blas azokari bete-betean eragiten dio

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Azken hileotan ganadu azoka gutxi batzuk baino ez dira egin Euskal Herrian. Behien artean zabaldutako gaitz bat dela eta —dermatosi nodular kutsakorra—, Eusko Jaurlaritzak azokak egitea debekatu zuen urrian. Gaixotasun nodularra gaixotasun birikoa da eta ganaduari eragiten dio. Hau da, dermatosi nodular kutsakorrak ez die gizakiei edo beste animalia espezie batzuei eragiten.

Eusko Jaurlaritzak azokak debekatu zituen urrian, baina

abenduan kendu egin zuten debeku hori. Abenduaren 26an berriro ere ezarri zuten, otsailaren 26ra arte. Debeku horrek bete-betean eragiten dio Abadiñoako San Blas azokari. Sanblasetakoa egun berezia da abadiñarrentzat, baita inguruko baserritarrentzat eta ganaduzaleentzat ere. Azoka berezi egiten duen osagaietariko bat horixe da, bertan batzen den ganadu kantitatea. Mikel Urrutia alkateak ANBOTOr jakinarazi dionez, aurtengo azoka behirik eta idirik barik

egingo dute. "Egongo da San Blas azoka eta egongo dira abereak, baina behirik eta idirik ez. Ahaleginduko gara azoka erakargarria egiten eta galera hori betetzen", azaldu du alkateak.

"IDIEKIN EZINGO DA PROBARIK EGIN. IKUSI BEHARKO DUGU EA ZER BESTE AUKERA DAUKAGUN"

San Blas jaietako idi probak ere ezin izango direla egin baieztatu du Urrutia alkateak. "Idiekin ezingo da probarik egin. Ikusi beharko dugu ea zer beste aukera daukagun", gaineratu du.



San Blas azokako artxiboko irudi bat.



Abadiñoako Udaleko argazki bat.

Babes Zibileko Planaren barruan formakuntza saioak Abadiñon

Abadiñoako udalbatzak larrialdiei aurre egiteko Babes Zibileko Udal Plana onartu zuen abenduko plenoan

J.G. ABADIÑO

Azken urteotan eguneratu barik egon eta gero, Abadiñoako Udalak Babes Zibileko Udal Plana onartu du. Udalak prentsa ohar batean azaldu duenez, Abadiñoarentzat "gakoa" den tresna bat da, babes zibilaren prebentziorako, larrialdiei aurre egiteko eta kudeaketarako esparru legala, teknikoa eta operatiboa ezartzen baititu.

Datozen hileetan, udalak formakuntza saioak eskainiko ditu herritarrentzat eta boluntarioentzat. Plan Zuzentzailea da eta Euskadiko Babes Zibileko Planaren jarraibideei jarraitzen

die. Udalerrri barruko larrialdietan esku hartzeko prozedurak eta antolaketa-egitura eratzea da helburua, eta, boluntarioen bitartez, laguntza berehala emateko diren tokiko taldeak antolatzea. Gainera, herritarren arteko autobabesa sustatzen du, udalerriko arriskuak eta elementu kalteberak identifikatzen eta aztertzen ditu, hautemandako arriskuak murrizteko prebentzio-neurriak definitzen ditu, eta arriskuei zein babes-neurrii buruzko informazioa eta kontzientzia ematen dizkie herritarrei.

Laguntza programen bitartez gazteen kontratazioa bultzatzen

16tik 30 urtera bitarteko gazteen kontratazioa bultzatzeko laguntza-programetan parte hartuko dute

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoako Udalak aho batez onartu du 16tik 30 urtera bitarteko gazteen kontratazioa bultzatzeko laguntza programetan modu egonkorrean parte hartzea, hau da, Europako Gizarte Fun-

tsagaz eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako EGF Plus 2021-2027 programako deialdietan parte hartzea. Udalerriko gazteei esperientzia eta lan profesionalerako aukerak eskaintzea da ekimenaren helburua.

Abadiñoako Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, dagoeneko hasi dituzte trami-teak laguntza programa horretara atxikitze. Orain, deialdia nola aplikatuko den erabakitzeke informazioaren zain daude.

Bestalde, Abadiñoako Udalak politika publikoen garrantzia azpimarratu du. "Deialdia egiten den bakoitzean, Abadiño aukera horiek baliatzeko prest egotea da gure helburua", azaldu dute udal ordezkariak.

500.000 euro Goitondoko industrialdea eraberritzeko

Mallabiko Udalak 3,18 milioi euroko aurrekontua izango du 2026an. EAJren aldeko bozkagaz onartu dute

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak 3,18 milioi euroko aurrekontua onartu du 2026rako, %22,6ko hazkundera duen aurrekontua. Aurrekontua abenduko osoko bilkuran onartu zuten, EAJren aldeko bozkagaz. EH Bildu abstenitu egin zen.

Mallabiko Udalak jakinarazi duenez, Eusko Jaurlaritzaren ZAP (Lehentasunezko Jarduera Eremua) diru laguntzari eskerrak —350.000 euro—, izango du horrelako igoera aurrekontuak. Laguntza hori Goi-

tondo industrialdea eraberritzeko izango da. Proiektu horrek 500.000 euroko aurrekontua du eta hortik 350.000 euro diru laguntzatik bideratuko dira.

Hainbat inbertsio

Goitondokoa ez da inbertsio bakarra izango: 110.000 euro bideratuko dituzte herriko plaza berritzeko, 70.000 euro Zubitegi parkean komun publikoa instalatzeko, eta 30.000 euro Areitio gaineko etxebizitzak hobetzeko.

"2026rako onartutako aurrekontuak gobernu talde honek mallabitarren ongizateagaz duen konpromisoa islatzen du. Goitondo industrialdearen berrikuntza, Eusko Jaurlaritzaren laguntza handiagaz finantzatutako proiektua, urrats garrantzitsua da ekonomia indartzeko. Mallabia geroago eta leku oparoagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa izatea gura dugu, eta aurrekontu hau urrats sendoa da helburu horretarako", adierazi du Igor Agirre alkateak.

JAURLARITZAREN ZAP DIRU LAGUNTZARI ESKERRAK IZAN DU IGOERA AURREKONTUAK



Durangaldeko
Okm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

*Durangaldeko OKm gida
erakusleiko ezin hobea duzu
eskualdeko merkataritza
eta zerbitzuetan.*

*Jarri gurekin harremanetan konprometuz barik
688 731 402 telefonoan*

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

www.anboto.org/gida



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

URTARRILEKO ZOKKETAK



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Areatza bainuetxea, Gau bat logela bikoitza, gosaria + zirkuitu termala 2 lagunentzat.



Basa take away jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



Arriola Antzokia, Umeentzat Antzerkia: Markeliñe "Hodei guztien gainetik". Otsailak 1

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Ludoteka zerbitzua lehiaketara Atxondon

Aste honetan, Atxondoko Udalak lehiaketa publikoa ipini du martxan ludoteka eta udaleku zerbitzuak kontratatzeko. Esleipena urtebetekoa izango da eta beste urtebetez luzatzeko aukera egongo da. Hilaren 26ra arte aurkeztu daitezke

Joseba Derteano ATXONDO

Atxondoko Udalak lehiaketa publikora atera ditu ludoteka eta udaleku zerbitzuak; guztira, 23.000 euroko aurrekontuagaz. Esleipena urtebetekoa izango da eta beste urtebetez luzatzeko aukera aurreikusten da, udalak ohar batean informatu duenez. Lehiaketako informazio guztia udaleko webgunean (www.atxondo.eus) 'Kontratatzailearen profila' atalean dago eskuragarri, eta baita udaletxean bertan ere. Proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 26ra artekoa da. "Zerbitzua ahalik eta azkarren berriro herritarren eskura ipintzea da helburua", zehaztu dute.

Zerbitzua Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrei zuzenduta dago. Urtean 10 hilabetez eskainiko dute ludoteka zerbitzua, astelehenetik bari-kura, 16:30etik 18:30era, eta udan udalekuak egingo dituzte adin tarte desberdineko haurrentzat.



Eskolaren ondoko eraikinean ematen dute ludoteka zerbitzua.

Udalak eskerrak eman gura dizkie orain arte ludoteka zerbitzua kudeatu duten arduradunei, urteetan egin duten lanagaitik: "Herriko bizitzan aktiboki parte hartu dute ekimen ugarriz: besteak beste, On Martinegunean,

Gazteñerren, arimen gauan, inauterietan, eta herrian egin-dako beste jarduera batzuetan. Haurrentzako askotariko proposamenak eskainita, herriko egunerokoaren parte izan dira urte hauetan guztietan".

Batzar zabala Mañarian inauteriak antolatzen hasteko

Joseba Derteano MAÑARIA

Mañariko Kafraga kulturelkarreak batzar batera deitu du domeka honetarako, urtarrilak 18. 17:00etan izango da, liburutegi zaharrean. Herriko inauteriak elkarregaz antolatzen hastea da deialdiaren helburua. Otsailaren erdialdean izango dira aurtengo karnabalak. Batzarzabal horretan, herritarren proposamenak eta ideiak jasoko dituzte. Ildo horretatik, gazte zein helduak gonbidatu dituzte parte hartzera. Kafraga elkarrekin, herriko gainerako eragileekin elkarlanean, hainbat ekimen antolatzen du urte osoan zehar, herriko bizitza bultzatzeko. Esaterako, ekainerako Albokan Rolla jaialdia antolatzen dute.

Swing dantza ikastaro bitan parte hartzeko aukera Izurtzan

Lindy Hop eta Shim Sham dira dantza estilo biak. Ordu eta erdiko klase bana izango da, urtarrilaren 25ean

J.D. IZURTZA

Izurtzako Korrala Sormen Guneak dantzaz beteriko domeka proposatu du urtarrilaren 25erako: Gabi Gonzalez swing irakasleagaz swing-dantzaren inguruko ikastaro trinko bi egongo dituzte: Lindy Hop hasierako mailan eta Shim Sham. Klaseak Korrala guneak Izurtzan duen lokalean izango dira.

Lindy Hop tailerra hasiberriei bideratuta dago eta 11:00etatik 12:30era izango da. Dantza estilo hau 1930eko hamarkadan sortu zen AEBetan eta swing musika-

gaz estuki lotuta dago. Bikoteka dantzatzen da.

Shum Sham tailerra 12:30etik 14:00etara izango da. Shim Sham swing-dantzarien artean klasiko bihurtutako koreografia kolektiboa da, pauso sorta errepikakor eta dibertigarrietan oinarritzen dena eta taldean dantzatzea eta erritmoak partekatzea ahalbidetzen duena.

Ikastaro batean parte hartzea 15 euro da, eta bietan parte hartzea 25 euro. Izen ematea korrala@ganso.info helbide elektronikoaren bitartez egin daiteke.

Mendeetako ohiturari eusteko hitzordua Garain

Garaitarrek 400 urte baino gehiagoko tradizioa berrituko dute zapatu honetan, San Anton eguneko erremata eginda. Herritarrak 12:00etan batuko dira Elizabarrin, mezarako, eta hura amaitutakoan hasiko dute baserriko produktuen enkantea

Ekaitz Herrera GARAI

Eskualdeko luze-zabalean Garai da, seguruenik, San Anton egunez baserriko produktuen enkantea egiten duen herri bakarra. Bertako errematak 400 urte baino gehiagoko historia duela dio Lazaro Milikuak, eta, berak dioenez, baliteke Elizabarrin ateak 1550ean zabaldu zituenetik honako ohitura izatea. "Esango nuke San Juan eliza sortu zenetik hona egiten dela erremata. Elizako gastuak-eta ordaintzeko egingo zuten hasieran, eta ohiturak urterik urte iraun du gaur arte. Hemen, behintzat, betidanik ezagutu dugu, baita gure gurasek eta haien aurrekoek ere", azaldu du Milikuak. Gaur egun ere hasierako asmo horri eusten diote, errematan baturikoak elizarako eta Caritasentzat gordetzen dituzte eta. "Salbuespen bakarrenetariakoak Thailandiako tsunamikoei laguntzea eta Ekua-dorreko lurrikaran kalteturikoei laguntzea izan dira", gogorarazi du garaitarrak.



Lazaro Milikuak, errematarako prest.

San Anton baserritarren eta abereen zaindaria izanik, herritarrek eskaintzak egin izan dizkiote santuari urterik urte. Lazaro Milikuak, adibidez, ondo gogoan ditu txerriekin egindako errematak: "Lehen txerri je-

nero gehiago egoten zen, txerriak baserri guztietan egoten ziren eta. Odolostea, txistorra, lukainka... Etxean beti entzun ditut *San Antonio txiki, lukainka hau San Antonetarako gorde...* eta halako berbak. Errematan txerrikumea ikusita nago. Baita untxiak, oilaskoak, oilandak eta txakurrak ere. Baina, jakina, animalien legea dela-eta gaur egun ezin dugu halakorik egin", zehaztu du Milikuak.

Zapaturako prest

Lazaro Milikuak hamabost urte baino gehiago egin ditu Garaiko erremata dinamizatzen. Negugortarrendandik hartu zuen ekitaldia gidatzeko ardura, eta zapatu honetan ere pozik arituko da porruak, arrautzak, pastelak, babarrunak zein txorizoa enkantean saltzen. Pozik saioa gidatzen eta herritarrak zirikatzen. Meza 12:00etan egingo dute, eta hura amaitutakoan hasiko dute erremata.



Abenduan onartu zituzten aurrekontuak, aho batez. ZALDIBARKO UDALA

40 urteren ondoren, adostasun osoa Zaldibarko aurrekontuetan

Gobernu taldeak oposizioaren ekarpen guztiak onartu ditu. Udalak 4 milioi eurogaz kudeatuko du 2026a

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak aho batez onartu ditu aurtengo aurrekontuak, 40 urte baino gehiagoan adostasunik barik onartu eta gero. "Beti esan dugu gobernu talde hau zabalik dagoela negoziazioetarako eta adostasuna lortzeko. Eta oraingoan lortu dugu. Eskerrik asko alderdi politiko guztiei", esan du Eneritz Azpitarte alkateak. Udalak 4.057.068,08 euro izango ditu datorren urtea kudeatzeko, aurrean baino %6,5 euro gehiago.

Inbertsio nagusien artean, Olazarko ur-parkea goitik behe-

ra berriztea, rokodromo berrituan fitness makinak ipintzea, herriko parke bat birmoldatzea, Haurreskolako jolastokia berriztea eta Nagusien Etxeko fatxada konpontzea daude. Era berean, gobernu taldeak oposizioeko alderdien ekarpen guztiak onartu ditu. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko gunea ipini eta Nagusien Etxea birkokatzeak aukerak aztertuko dituzte, EAJren eskariz. Halaber, eskatu ahalako taxi zerbitzua ipiniko dute baserri auzoetan, eta Nagusien Etxearen inguruko argiteria hobetuko dute, PSE-EEk eskatuta.

Asteburuan San Sebastian jaiak ospatuko dituzte Bakixa auzoan

Umeentzako ekintzak, danborrada, bertso bazkaria, dantzariak eta herri kirolak egongo dira asteburuan



2023ko Bakixako umeen danborradaren irudi bat.

A. Basauri IURRETA

Asteburuan jai giroan murgilduko dira Iurretako Bakixa auzoan. Donien Atxa jasota hasi zituzten atzo San Sebastian jaiak, eta, ospatzeko, egitarau borobila prestatu dute. Jai Batzordeak Maiztegi eskolako dantzarien erakustaldia, antzerkia, umeen eta nagusien danborradak, herri kirolak eta bertso bazkaria antolatu ditu, besteak beste.

Aurten ere, Iurretako Kofradien Batzordeak autobusa ipiniko du Bakixara joateko eta handik bueltatzeko. Bihar autobusa 16:30ean irtengo da, Iurretako Maspe kaletik. Baita 21:00etan ere; azken horrek bueltako bidea ere egingo du herrigunera. Goizaldean ere egongo da autobusa Bakixatik Maspe kalera bueltatzeko, 01:30ean. (Egitarau osoa kultur agendan).

Eskolarako jolastoki "duina" aldarrikatuko dute Iurretan, zapatuan

A.B. IURRETA

Aldarrikapena eta jaia uztartuta, Iurretan jaialdi bat egingo dute Maiztegi herri eskolarako jolastoki "duin" baten alde. Maiztegi guraso elkarteak antolatuta, aurpegi margotzea, eskulanak, txapa, globoflexia eta sormen tailerrak eta jolasak egongo dira Askondoko aterpean, 11:00etatik 13:30era bitartean. Aldarrikapen zaratzatsua ere egingo dute, 12:00etan.

Abenduan udaleko gobernu taldeak adierazi zuen finantziazioa ziurtatu arte ez dutela jolastokia eraldatzeko proiektua gauzatuko. Horren aurrean, guraso elkarteak bere "haserre" eta kezka" erakutsi zituen.

Basoen erresilientzia indartzeko lanak Otxandion

A.B. OTXANDIO

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarduketa egingo du Bizkaiko mendietan azken urteetan izan diren kalteei aurre egiteko. Otxandion, Azpikoarri inguruko hektarea bitan egingo dituzte lanak. Lehendik zeuden pinuak bota dituzte, eta orain tokiko hostozabalak landatuko dituzte. Itxiturak ipiniko dituzte, eta arbola batzuetan tutu-babesleak, ganadu, orkatz edo oreinengandik babesteko. Hainbat herritan gauzatuko diren proiektuak finantzatzeko Aldundiak bi milioi eurotik gora jaso ditu Espainiako Gobernuak basoak eta biodibertsitatea zaintzeko EAERA bideratzen dituen funtsetatik.

JAEDen autoa 10117arentzat

JAED elkarteak urte hasieran egin zuen zozketa solidarioa. El-karteak pozarren dago Gabon haue-tako kanpainagaz. "Oso balorazio positiboa egiten dugu. Oso esker-tuta gaude Durangaldeko herri-tarrekin", adierazi du Susana Lorenzo elkartekideak. Aurten, gainera, errekorra hautsi dute. 80.000 txartel ipini zituzten salgai, eta denak saldu zituzten.

jaed DURANGO 2026					Zozketa Solidarioa				
DURANGO 2026					SORTEO SOLIDARIO				
1º 10.117	12º 28.511	23º 16.305	34º 72.527	45º 43.672	1º 10.117	12º 28.511	23º 16.305	34º 72.527	45º 43.672
2º 57.406	13º 39.377	24º 46.538	35º 54.309	46º 05.222	2º 57.406	13º 39.377	24º 46.538	35º 54.309	46º 05.222
3º 04.560	14º 41.359	25º 29.506	36º 06.101	47º 08.228	3º 04.560	14º 41.359	25º 29.506	36º 06.101	47º 08.228
4º 42.680	15º 48.240	26º 52.136	37º 39.390	48º 10.939	4º 42.680	15º 48.240	26º 52.136	37º 39.390	48º 10.939
5º 16.020	16º 71.996	27º 10.130	38º 56.237	49º 50.459	5º 16.020	16º 71.996	27º 10.130	38º 56.237	49º 50.459
6º 16.747	17º 15.110	28º 57.798	39º 74.571	50º 52.856	6º 16.747	17º 15.110	28º 57.798	39º 74.571	50º 52.856
7º 60.835	18º 29.699	29º 34.834	40º 65.441		7º 60.835	18º 29.699	29º 34.834	40º 65.441	
8º 35.614	19º 01.843	30º 10.584	41º 68.822		8º 35.614	19º 01.843	30º 10.584	41º 68.822	
9º 79.071	20º 49.299	31º 63.078	42º 18.833		9º 79.071	20º 49.299	31º 63.078	42º 18.833	
10º 65.770	21º 57.097	32º 73.221	43º 30.435		10º 65.770	21º 57.097	32º 73.221	43º 30.435	
11º 48.061	22º 77.191	33º 68.509	44º 00.176		11º 48.061	22º 77.191	33º 68.509	44º 00.176	

JAEDEN ZOZKETAKO EMAITZAK

DURANGALDEA ASTEON



EITB.EUS

Ane Legorburu 'El Conquistador del Caribe' saioan

ATXONDO *El Conquistador del Caribe* saioaren 22. edizioa estreinatu zuten astelehenean ETB2n, euskal telebistako abenturarik jarraituena. Julian Iantzik Patxi Alonsogaz eta Lur Errekondogaz batera gidatutako programan 31 parte hartzaile daude, eta euretariko bat eskualdekkoa da; Ane Legorburu, 29 urteko atxondarra.

Uretako puzgarriak zapatuan Landakon

DURANGO Zapatuan, urtarrilak 17, 5etik 12 urtera bitarteko umeek uretako puzgarriez gozatzeko aukera izango dute Landakoko igerilekuan. Jardunaldia 16:30etik 19:30era egingo dute, txandaka, erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzeko. Parte hartu gura dutenek aurretiaz eman beharko dute izena, Durango Kirolakentzako atarian edo Landako II kiroldegiko harreran.

GUTUNA

Itzali ezin den argia zarelako, beti gurekin, Juankar

JUAN KARLOS ELGEZUAREN LAGUNAK

Pertsona borrokalaria, konprometitua eta leiala izan da Juan Karlos. Hori gutxi jarri dezake zalantzan. Gogoratzea besterik ez dago zenbat ordu sartu izan zituen AEKn euskara-mailla hobetzeko, edo bere kirol ibilbidean aurrera egiteko: Durangoko Kulturalen, Deportivo Alavesen, entrenatzaile bezala hainbat taldetan... Ziur gaude oraindik ere bati baino gehiagori belarriek burrunba egingo diotela jokalaria eta jokalaria ez zirenei egindako eta botatako oihu eta garrasiekin. Eta inor gutxi bezala, gizon konprometitua. Gaztetatik erakutsi zion maitasuna eta erres-

petua bere herriari. Alde batetik, ideologia abertzaleko familia desberdinak besarkatzeko gai izan zen, eta bestetik, bere bizitzako onena eskaini zion bere herriari herrigintza-ren bidez: urteetan zinegotzi, herri ekimen desberdinen sustatzaile (auzolanak, jai batzordeak, Santagedak, Errege Magoak,...), eta nola ahaztu Urrula Donea Adinekoen Elkarteari eskainitako denbora eta lan eskerga.

Lagunen laguna, eta beti besteei esku bat botatzeko prest. Horrelakoa izan da gure Juankar.

Adiorik ez, adiskide. Herri-izarrak ez dozak itzaltzen, ez dozak amatetan, eta hirea hor izango diagu, betirako, Mañariko zeru gainean.

Mañariko hire lagun eta kua-drilla

Zure gutuna helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - lurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina: Deñe Izaga Yeregui.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

BERRIZ ANTONIO DEUNA JAIK



ANTONIO DEUNA JAIK • BERRIZ

URTARRILAK 16

19:00 XIX. San Antonio pilota txapelketa.

Eskuzko finala. Olakueta frontoian.

19:00 Kalejira olaketan

Bentazharreko mutiko alaiak eta Berrizko kantulagunak.

19:00 Sagardotegi ibiltaria.

Odoloste jana olakueta plazan.

Ondoren, Olakuetarrek ibilalditxo egingo dute.

Gero, Donien Atxa jaso eta Juan Cruz Elvira Alberdi 'Txapu'-ri omenaldia egingo diote. Olakueta plazan.

20:00 Kontzertua. Bidelapurak

Hiltegi gaztetxean.

URTARRILAK 17

12:00 Meza Antonio Deunaren basilizan.

12:00 Pontx pailazoa 'Denak plazara' Olakueta frontoian.

18:00 Disko festa. Probalekuan.

20:00 Kontzertuak. Zain, Mirotz eta Tenderete MJ musika jartzailea Hiltegi gaztetxean.

URTARRILAK 18

11:00 Meza Antonio Deunaren basilizan.

11:00 Eskualdeko XLIV. Barazki eta Fruitu Erakusketa probalekuan.

12:00 Hanburgesa dastatzea. Olakueta plazan.

Ondoren Iremiñe - San Lorentzo Dantza taldeak Olakueta plazan.

URTARRILAK 19

17:00-19:00 Barrakak merkeago.



MIROTZ

Berriz Mirotz

Kontzertua.

Hiltegi gaztetxea, 22:00etan

19:00 Nekazaritza-olinpiada.

Olakueta frontoian.

Sarrera: 2€.

Ikuskizunean, txorizo-ogitartekoa eta edaria (amaitu arte).

URTARRILAK 24

19:00 Trajea. Antzerkia. Berrizko Kultur Etxean.

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45
Garaia A, BERRIZ
Tel./Fax: 946 824 143
Mug: 658 758 42
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Iturriza 39
BERRIZ
946 82 48 36



Iturriza 12
BERRIZ
946 82 42 83



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
PSE: 162/13

Naia Zabala Azurmendi
11587 kol. zk.

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 - BERRIZ - 94 622 50 99
keinuoptometriazentroa.com

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Behar duzuna
hurbil eta eroso

Zengotitabengoa kalea BERRIZ
946 824 215

Gaur hasiko dituzte San Antonio jaiak Berrizen

Ofizialki gaur hasiko dituzte San Antonio jaiak Berrizen; 18:00etan altxatuko dute Donien Atxa, eta, ondoren, iazko martxoan zendu zen Juan Cruz Elvira 'Txapu' omenduko dute; Hiltegiak kontzertuak egongo dira gaur eta zapatuan, 22:00etan

A. M. BERRIZ

Durangeldeko urteko lehenengo jaiak ate joka daude. Hain zuzen ere, gaur, urtarrilak 16, altxatuko dute Donien Atxa Berrizko San Antonio jaiak ofizialki hasiera emateko. 19:00etan, kalejira batek Olakueta eta inguruetako bazterrak zeharkatuko ditu, Bentazarreko Mutiko Alaiak eta Berrizko Kantulagunak taldeetakoek euren ahotsekin giroa berotzen duten bitartean. Lagunarteko giroan, kantu zaharrek, bertsoak eta lagunarteko giroa zabalduko dute, sagardotegi ibiltariagaz batera; odoloste-jana ere egingo dute plazan. Ondoren, Donien Atxa jasoko dute. Aur-



lazko nekazaritza-olinpiadak.

tengo ekitaldian, iazko martxoan hil zen Juan Cruz Elvira 'Txapu' omenduko dute. Gaur borobiltzeko, Bidelapurak taldeak kontzertua emango du Hiltegiak gaztetxean; talde gasteiztarrek hamarkada bat darama folk doinuak plazarik plaza eramaten. Emanaldia 22:00etan hasiko da.

Zapatuan, San Antonio eguna ospatuko dute goizetik. 12:00etan hitzordu bikoitza egongo da; alde batetik, meza Antonio Deunaren baselizan, eta, bestetik, Pontx pailazoaren *Denak plazara* ikuskizuna. Arratsaldean Disko Festa egongo da probalekuan, eta gauean kontzertuak Gaztetxean. Zain eta Miroz taldeak eta Tenderete musika jartzailea arituko dira bertan; hainbat urteko etelaldiaren ondoren, Zain laukote berriztarra oholtzetara bueltatuko da gaualdi berezi honetarako. Euren ibilbideko abesti sorta prestatu dute emanaldirako; rock-punk taldea 2005ean sortu zen. Bestalde, Miroz hirukoteko kideak gasteiztarrek dira; 2023an sortu zuten taldea eta pop doinuak jorratzen dituzte. Hurrengo egunean, domekan, tradizio handiko barazki eta

fruitu erakusketa egingo dute probalekuan. Ekitaldiak 44. edizioa izango du eta eskualdeko ekoizleek euren baserri eta lurretako produkturik onenak erakutsiko dituzte bertan. 12:00etan hamburgesa dastatzea egongo da Olakueta plazan, eta, ondoren, Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeetako kideek dantzan egingo dute, ohikoa duten moduan.

Astelehenean ere, jaiak

Berriztarrek zapo bereziko astelehena izango dute hurrengo. Barrakak merkeago egongo dira umeentzat, baina hori baino garrantzitsuagoa izaten da Olakueta frontoiko hitzordua. Izan ere, 19:00etan hasita, nekazaritza-olinpiadak egingo dituzte. Bertan, kuadrillek hainbat proba egin beharko dute, lehia sana nagusi dela. Ikuskizunean txorizo ogitarteak eta edaria banatuko dituzte. Beste urte batez, giro onak eta barreek jantziak dituzte harmailak. Jaiak amaitzeko, hilaren 24an, 19:00etan, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza aktoreek *Trajea* antzezlan taularatuko dute.

T.A. TORNILLERIA AMEZUA S.A.
www.tornilleria-amezua.com

BOUTIQUE
Luisa
Iturriza, 8
48240 Berriz
946 82 41 12

pedrojuanena
JATETXE-ERRETEGIA
SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

BERRIZKO PIZZA & Kebab
Geltoki kalea 9
48240 BERRIZ
944 00 25 89

Estanko Etxebarria
Iturriza 14, Berriz
Tel: 94 682 79 58

Carniceria Mariam
HARATEGIA
Iturriza 10, Behea
48240 BERRIZ
688 881 464

CERAMICAS MACOBER
ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Iturri eta Iruñe*
Eitua Indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

Egunon
OKINDEGIA
KAFETEGIA
GOZOTEGIA
Iturriza 21, Berriz
Tel.: 946 550 902

"Gure alabak ere ez du jakiten zeintzuk proba prestatzen ditugun"

SORKUNDE VIGUERA ETA MIKEL LASKURAIN NEKAZARITZA OLINPIADEN ANTOLATZAILEAK

Ekaitz Herrera BERRIZ

Sorkunde Viguera eta Mikel Laskurain senar-emazte berriztarrek urteak daramatzate nekazaritza olinpiadak antolatzen. Astelehenean dute hitzordua, 19:00etan, frontoian. Urtero legez, proba berrirenategaz joango direla aurreratu dute. **Eta, halako batean, baten batek esan dezake nekazaritza olinpiadak ezin direla zuek barik irudikatu.**

Mikel Laskurain: Urte dezente daramagu olinpiadak dinamizatzen, hamabost bat urte edo. Edozelan ere, gu ez gauden egunean, lasai, besteren batek egingo ditu-eta lanok! Ni mikrofonoagaz egoten naiz.



Sorkunde Viguera eta Mikel Laskurain prest daude olinpiadak dinamizatzeke.

Sorkunde Viguera: Eta ni administrari lanetan! Denborak apuntatzen, epaile lanak egiten. **Izan ere, zuen lanbidea apropos-aproposa da olinpiadak antolatzeke. Biak zarete gimnasia irakasle.**

S.V.: Guretat ez da gaxa izaten halako gauzak antolatzea. Askotan egin izan ditugu halako dinamika eta talde jokoak ikasleekin.

M.L.: Gaur egun ere taldeak dinamizatzen lan egiten dugu. Horrenbestez, hemen egiten ditugun jokoak urteetan eskolan ikasitakoak dira.

Zeintzuk dira proba gaxagoak: eskolakoak ala "beheko jaietan" antolatutakoak?

M.L.: Hemen sariak daude, eta horrek lehia eragiten du kuadrillen artean. Gero, kurioa da sariagaz gertatzen dena. Izan ere, nahiz eta dirua kuadrilla bakar batek irabazi, diru hori denen artean gastatzen dute gero.

S.V.: Polita da hori. Lehia dagoen arren, dena partekatzen dute. Ederra da ikustea kuadrillek elkarrengaz bazkaltzeko edo afaltzeko erabiltzen dutela saria.

M.L.: Gainera, Berrizen ohikoa da belaunaldi desberdinetakoak

batzea, askotariko ekintzak elkarrengaz egitea, kuadrilla desberdinetakoak batzea.

Txoritxo batek esan digu urtero sartzan duzuela proba berriren bat.

M.L.: Pentsa! Gure alabak ere ez du jakiten zeintzuk proba prestatzen ditugun. Gu bion arteko sekretua izaten dira. Tira, gurea eta materiala erostez arduratzen den udal teknikariarena.

S.V.: Nekazaritza olinpiadak direnez, zuztar horiek mantentzen ditugu. Sokatira, txorokil batzea, zaku lasterketa eta halakoak. Jendeak proba biziak eskatzen dizkigu, hau ikuskizuna delako, azken finean.

Olinpiar Jokoen inbidiarik ez, beraz.

S.V.: Frontoia herriko jendez beterik egoten da eta ez da jatekorik edo edatekorik falta izaten. Jendea ondo pasatzera etortzen da, irribarretsu. Izan ere, jende ezaguna da, herrikoa, eta elkarrengaz ondo pasatuta lotura handia sortzen da.

M.L.: Harmailtan ere igartzen da hori. Ikusleen artean umeak, familiak, gazteak zein adinekoak daude. Oso giro polita egoten da.



SARRAILGINTZA · ATEZAIN AUTOMATIKOAK · BIDEO ZAINZA



ferreteriaibaiondo@gmail.com · Geltoki, 11 BERRIZ · 946 824 489

-Etxeko argazki zerbitzuak
-Jaunartzeak
-Ezkontzak
-Sesioak



Zure Argazki Denda
100 % pertsonalizatua
Eneko Uribe 649330740

**DUÑE
ASESORES
Torrealdy**

**ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA**

Geltoki kalea, z/g BERRIZ
94 622 54 26
berriz@torrealdy.es
www.atctorrealdy.com

**Fonda
taberna**

Iturriza kalea, 9
48240 BERRIZ
Tel.: 946 824 009



EBANISTERIA-CARPINTERIA

ABADIÑO

JULIAN DARIO VILCA TOCO

Eitua Industriegunea · San Fausto eraikina, 50 BERRIZ
676 111 774 · dariovilca@hotmail.com



Julia Arraizdegia

Zengotitabengoa 2, beheka
BERRIZ

675 187 957



'Jonkass' zuzenean.

"Neure burua zuzeneko artista legez ikusten dut gehiago"

JON CASTAÑEDA 'JONKASS' MUSIKARIA

MUSIKA Erromerietatik aldendu eta bere proiektu propioari ekin dio Jon Castañeda 'Jonkass' musikari zornotzarrak; 'Dam' diskoan batu ditu azken urteetan sorturiko abestiak

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Paradisu Zinema beka irabaztearen bultzada jasota, 'Jonkass' zornotzarrak *Dam* lana kalera-tu du. Urtarrilaren 31n kontzertua emango du Zornotzan, Musikagaz Fest jaialdian. Gogotsu dago, urduri ere badagoela onartu duen arren.

'*Dam*' Drogazale, Adardun eta Marikoia izendatu duzu diskoa. Zer dela eta?

Faktore askok eragin dute. Buruan beti izan dut disko bat kaleratzea, amets baten modu-

koa zen, eta Paradisu Zinema beka irabaztea bultzada bat izan zen horretarako. Izenarena ez dakit noiz erabaki nuen zehatz, baina pentsatu nuen zeozer probokatiboa eta desberdina egin gura nuela. Neu-

"USTE DUT HASIERAKO KAOSARI ZENTZUA EMATEA LORTU DUGULA ESTUDIOAN"

rri batean, badira oholtza gainera igotzen hasi nintzenetik entzun behar izan ditudan gauzak, ez askotan, baina bai batzuetan; azken finean, taula gainera igotzerakoan horretara arriskatzeko zara, edozeinek komentatu dezake zeozer, eta, horretarako, nik neuk esatea gurago nuela erabaki nuen. Hau da, "hemen nago eta ez naiz zuena" konplexurik barik esateko.

Akerbeltzen garaia atzean utzita, bakarkako bideari ekin diozu orain.

Erromerietan hasi nintzenetik, beti argi izan dut behin-behineko zeozer izango zela. Oso ondo pasatzen nuen, baina beste zeozer egin eta eskaini gura nuen, eta horrela heldu da *Dam*.

Bakarkako lana izateak presioa gehitu dizu, ala kontrara, askeago sentitu zara?

Bietatik apur bat. Alde batetik, bertigo handia eman dit. Hainbat kontu batu zaizkit bizitzan, pisu handia dutenak, eta diskoa kaleratzeak apur bat ustekabean harrapatu nau, oso arin joan da eta. Esango nuke bertigo sentsazio horrek zuzeneko biragaz hasi arte iraungo duela, edo kontzertu segida bat izan artean behintzat. Bertigoaz gainera, ardura ere handia da. Lehen, esaterako, behin erreperitorioa erabakita, kontzertuak ematea baino ez zen izaten ardura. Orain, konposatzerakoan ardura gehiago izan dut, gauza gehiago probatu dut, eta ardura izan dut ea inpaktua sortuko duen. Lan karga handiagoa ere izan da. Gainera, dena nire izenean doa eta horrek ere eragiten du. Adibidez, Janus Lester-ek edo Zetak-ek egiten dute, ezta?

Doinu desberdinak probatu dituzu lehenengo lan honetarako.

Bai. Estudioa heldu ginenean abesti mordoak neukan, garai desberdinetan sorturikoak. Lehenengo diskoa esperimintatzeko ere badela iruditzen zait, nondik jo erabakitzeke, eta gertatu zitzaidan ez nekiela zelan eman zentzu bat guztiari. Victor Santos ekoizleak asko lagundu zidan horretan. Diskoak zentzu bat izatea gura nuen, eta uste dut lortu dugula batasun bat ematea guztiari. Musika doinu desberdinak sartu gura nituen, ni ere horrelakoa naizelako, denerik gustatzen zait. Erromeria talde batetik nator eta bertan estilo mordoak jorratzen da. Eman dezake dena kaos bat dela, baina hari logiko bati jarraitzen dio. Baina, tira, egia esanda, estudioan konplexurik barik aritu gara, estilo batetik bestera jauzi egin.

Akerbeltzegaz berrehun kontzertutik gora eman dituzu. Zelan trebatu zaitu horrek musikari legez?

"GAUZA MORDOA IKASI DUT AKERBELTZ TALDEAN, EGUNDOKO ESKOLA IZAN DA NIRETZAT"

Akerbeltz taldean egon izan ez banintz ez nintzen izango gaur egun naizena, dudarik barik. Ez musikari legez, ez pertsona legez. Gauza asko ikasi dut eta itzelean trebatu naiz. Egundoko eskola izan da niretzat. Azken batean, kontzertu mordoak izan da eta zorte handia izan dut, gainera, oso musikari onak daudelako Akerbeltzen. Eurekin asko ikasi dut.

Estudiorako ere lagungarria izan zaizu esperientzia hori?

Egia esanda, neure burua zuzeneko artistatzat ikusten dut gehiago. Estudioa heltzerakoan nahikotxo kostatzen zitzaidan eta publikoaren indar hori behar nuela pentsatzen nuen. Dena dela, gogoratzen naiz ahots batzuk berriro grabatzea eskatu niola Victorri, ondo ez zeudelakoan; gero berak proba bat egin zidan, berriak eta zaharrak desberdintzeko, eta ez nintzen gai izan. Uste dut horixe zela behar nuen bultzada.

Zelan konpondu zara 'Dam' zuzenean aurkezten? Zelan gogoratzen duzu lehenengo kontzertu hura?

Bilbo Rocken izan zen lehenengo kontzertua, eta sentsazio arraroa izan nuen. Polita ere bai, jakina, baina denerik sentitu izan nuen. Durangoko Azokaren bueltan Plateruenean jo genuen eta oso sentsazio ona izan nuen han. Proiektuak badu zentzua zuzenekoetarako ere. Akerbeltzen publikoagaz konektatzea lortzen genuen, eta hemen ere gustatuko litzaidake hori. Kantarik ezagutu ez arren, publikoak ondo pasatu dezakeelakoan nago. Niri Dupla taldea ikusi nuen lehenengo aldian gertatu zitzaidan hori, adibidez. Abesti pare bat baino ez nituen ezagutzen, eta itzel pasatu nuen; guk ere hori lortzea gustatuko litzaidake.

Doinu tradizionalagoen beste ikuspuntu bat eskaintzen duzu Eider Etxenagusia 'Heitxi'-gaz batera. Olatu berri bat dator Zornotzatik?

Baietz esango nuke. Chill Mafia-ren agerraldia mugarri izan zen Euskal Herrian tabu musikalak apurtzeko. Pauso hori beharrezkoa izan zen halakoak apurtzeko. Mugimendu berri bat dagoela esango nuke, artista mordoak herri askotan, inoiz baino gehiago. Bestalde, Eiderrek eta biok aspalditik elkar ezagutzen dugu; musika eskolan elkarregaz ibili ginen. Esango nuke orain jende gehiago animatzen dela pauso hori ematera.

Zaintza lana umoretik, Hikaren azken lanean

ANTZERKIA Hamasei ekitaldik osatzen dute Durangoko San Agustineko ekainera bitarteko programazioa; zapatuan, hilak 17, Miren Gaztañaga, Iñake Irastorza eta Jabi Barandiaran aktoreek Hika konpainiaren 'Zorretan' antzezlanak aurkeztuko dute

Aritz Maldonado DURANGO

Hika konpainiaren *Zorretan* azken antzezlanak maitasuna eta zaintza lana ditu ardatz. Miren Gaztañaga eta Jabi Barandiaran bikotearen eta azken horren ama Iñake Irastortzaren arteko txarto-ulertu batek umore absurdoz eta poesiaz jantzi-tako istorioa eragingo du. Zapatuan, Durangoko San Agustín kulturgunean taularatuko dute, 19:00etan. Hain zuzen ere, ziklo berriko bigarren hitzordua izango da zapatukoa; lehenengoa 2023an Goya saria irabazi zuen Telmo Iruretairen eta Aitziber Garmendiaren ikuskizuna izan zen, urtarrilaren 11n.

San Agustineko denboraldi berri honetarako, askotariko programazioa eskaintzeko lan egin dute. "Uste dugu orain ere programazio orekatu bat eskaintzea lortu dugula", azaldu du Arantza Arrazola kulturguneko kudeatzaileak. Eta nabarmendu du helduentzako zein familia



Miren Gaztañaga, Iñake Irastorza eta Jabi Barandiaran. HIKA KONPAINIA

osoarentzako antzerkia eta magia ikuskizunak egongo direla. Besteak beste, Xirriquiteularen *Laika* antzezlanak egongo da ikusgai otsailaren 8an. Bestalde, Nacho Diagoren *aLUZina* magia ikuskizuna ere nabarmendu du

kudeatzaileak. "Argiaren bidezko bidaia bat proposatuko du, itzalak ere izango dituena, zelan ez, argiak harridura eragiteko duen erraztasunaz hausnartzeko"; otsailaren 21ean izango da, 19:00etan.



Full Cab.

Zapatuko kontzertuan gitarra doinu ilunek hartuko dute Ateneo

MUSIKA Full Cab bilbotarrek eta Barrrik arabarrek kontzertua emango dute zapatuan, 22:30ean

A. M. ELORRIO

Rockzaleek dosi bikoitza izango dute zapatuan Elorrioko Ateneoan. Full Cab eta Barrrik taldeek kontzertua emango dute bertan. Full Cab bilbotarrek *Full Cab* bigarren diskoaren aurkezpen biran murgilduta daude. Garaje erritmoak guztiz alboratu barik, eta gitarrek pisua galdu ez arren, bilbotarrek influentzia berriak eurenganatu eta pop doinueta hurbiltzea lortu dute lan honetan. *Out of order* debuteko lanagaz rockzaileen radarrean ipini zen taldea, eta, abesti berriak zuzenekoetan

txertatuta, beste latitude batzuetara ere eramango dituzte orain.

Barrrik taldea Aiaraldetik dator eta post punk doinueta mugitzen da batez ere. Ekainean zazpi abestiko *Walking about* lana kaleratu zuten eta harrezkero kontzertuak ematen dabil-tza Euskal Herri osoan zehar. Inguruetan ez ezik, Gernikako Lekue jaialdi entzutetsuan parte hartzeak dira martxoan, eta hile berean Bartzelona eta Madril aldera ere joatekoak dira. Ateneoko ateak 22:30ean zabalduko dituzte. Sarrerak zortzi euroan daude salgai.



GAI LIBREAN

MIREN ERDOIZA MUJICA BEHARGINA

Zuloa

Merina Grisek azken lanari *Zuloa* deitu dio, eta bertan, besteak beste, hutsuneari kantatzen diote donostiarrek. Urtea hasi berrian, metafora egokia iruditu zait barruko hutsuneari 'zulo' deitzea, eta Gabonetako zurrumbil-tik ateratzen ari naizela, pentsatu dut neure baitan zenbati handitu ote zaion zuloa barruan. Pentsatu dut ere, akaso, egongo dela bi mila eta hogeitaseian zulo berriak zabaldu zaizkionik.

Zuloa goserik gabe eta irentsi ezinda, kanpaietako hamabi mahatsak jaten estaltzen dela uste duenik bada. Zuloak tapatzen dira loteria boletoekin, enpresa eta familia bazkarietara joanda, zigarroak erretzen. Xanpain eta gin-tonic gaindosiz estali duenik ere egongo da, edo txapligoak bota eta bota aritu izan denik. Auskalo. *Brilli-brilli* arropak azalaren barrutik dagoen zulorik estaltzen al du? Eta ditzosozko *balaclavek*? Zerk betetzen

gaitu gehiago, 'Urte berri on' esateak ala entzuteak?

Gabonetan gorputz osoak dardara egiten digu. Urte osoan erreparatu ez diogun zuloa betetzen dugu turroia-ekin, mendiarekin edo popperarekin. Gabonetan orfidalekin lo egiten jarraitzen dugu eta alarmarekin batera esnatzen gara, urte osoan zehar egin bako kilometroak egin behar direlako. Korrika. San Silvestrek urte guztiko penak estaltzen ditu. Keba, gezurra da. Gabonetan abuztua izatea desio dugu. Gabonetan langostinoak erosten ditugu. Eta esparragoak. Eta pateak ere bai. Urdaiazpikoa, gazta, ardoa, opilak. Gabonetan krocketak egiten ditugu. Tartak, pudding-a eta lasagna. Gabonetan loditu egiten gara. Gabonetan lodituko garela pentsatzen dugu. Gabonetan lodituko garen beldurrez bizi gara. Gabonetan beldurrez bizi gara. Gabonetan ez dugu jaten. Gabonetan Kanariar Uharteak Dubai dira. Gabonetan Anbotora

igotzea derrigorrezkoa da. Eta afari eta bazkaritara joatea ere bai. Eta bertso saioetara. Eta poteora. Berrehun eta hamazazpi poteo guztietara. Guzti-guztietara. Gibelak eztanda egin arte edan behar delako Gabonetan. Gabonetan tripako mina daukagu afalostean. Eta esnatzerakoan, eta bazkaldu eta gero, eta afaldu aurretik. Gabonetan tripako mina daukagu beti. Gabonetan opariak egin behar dira. Ez daukazun dirua gastatu behar duzu. Oparitu liburu bat, jostailu bat, patinete elektriko bat. Oparitu puzzle bat, bizikleta bat, tablet bat edo oparitu etxe bat. Baina oparitu zerbait. Gabonetan zuloa handitzen da, eta mundua bukatzen da, gutxienez, egunean bizpahiru aldiz. Gabonetan apur bat gehiago hiltzen gara.

Urtea hasi da eta neurria hartu ezinda jarraitzen dugu. Ez dakigu beste era batean bizitzen. Badaude estali ezin diren zuloak. Eta ez da ezer gertatzen.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 16

DURANGO Erakusketa

Ilustrazio zientifikoko masterreko ikasleen lanak.

Ezkurdi aretoan, urtarrilaren 19era bitartean.

DURANGO Liburu aurkezpena

'El conflicto perpetuo II' aurkeztuko du J.J. Bakedanok. M. Onandia eta J. Sarrionandia izango ditu lagun.

Hitz liburudendan, 19:00etan.

ELORRIO Erakusketa

'Estelak'.

Iturri kultur etxean, otsailaren 27ra bitartean.

IURRETA Bakixako Jaiak

Maiztegi herri eskolako dantza taldea. Ondoren, jolas eta tailerrak. Igel txapelketa, 19:30ean. Mus Arineko Txapelketa, 20:00etan. *Bakixa auzoan, 17:30ean.*

ZALDIBAR Izen ematea

Zaldibarko Gaztetxeko DJ Maratoian parte hartzeko izen ematea zabalik. *Gaztetxean, urtarrilaren 22ra arte.*

ZORNOTZA Erakusketa

'Afrikako oroitzapenak: Sabanaren begiak' (Jon Batizen argazkiak). *Zelaieta zentroan, urtarrilaren 30era bitartean.*

ZAPATUA 17

ABADIÑO Jaia

San Anton Abad eguna. Meza, 12:00etan. Ondoren, usadioari jarraituta abereen bedekazioa egingo dute. *Urkiolako Santutegian.*

DURANGO Antzerkia

'Zorretan' (Hika Teatroa konpainia). *San Agustín kulturgunean, 19:00etan.*

ELORRIO Kontzertua

AteneOn: Full Cab eta Barrk. *Ateneoan, 22:30ean.*

GARAI San Anton Eguna

Meza, eta, ondoren, San Anton Eguneko Erramata. Bazkaria, Otea Lora elkartean. *Elizabarrin, 12:00etan*

IURRETA Jaia

Maiztegi eskolarako jolastoki duin baten aldeko jaia: umeentzako jokoak, eskulanak, aurpegi margotzea, tailerrak.... Ardarrikapen zaratzatsua, 12:00etan. *Askondo karpan (11:00-13:30).*

IURRETA Bakixako Jaiak

Paella txapelketa, 14:00etan. 'Lurrazpitik' antzezlan (Antxo eta Pantxa), 17:00etan. Briska txapelketa, 18:00etan. Danborrada txikia, 19:00etan. DJ Cifu, 21:30ean. Danborrada Mundiala, gauerdian. *Bakixa auzoan.*

IURRETA Bizikleta irteera

Osintxura irteera. Iurreta Txirindulari Elkarte. *Iurretan, 10:00etan.*

DOMEKA 18

IURRETA Bakixako Jaiak

Mikel Deuna dantza taldearen saioa, 12:00etan. Jarraian, herri kirolak: Sara Asenjo, Karnele Gisasola, Ioritz Gisasola eta Jon Gisasola. Bertso bazkaria: Onintza Enbeita eta Igor Elortza bertsolariekin, 14:30ean. Gero, kantu eta dantza erromeria, Gorkak, Izarrak eta Anderrek alaituta. *Bakixa auzoan.*

IURRETA Bizikleta irteera

Andra Mari-Aretxabalaganara irteera. Iurreta Txirindulari Elkarte. *Iurretan, 10:00etan.*

MARTITZENA 20

IURRETA Mahai-ingurua

Esker oneko jardunaldi literarioen barruan, Roald Dahlen literatura lanaren inguruko mahai-ingurua. Solaskideak: Mireia Delgado, Peru Magdalena eta Lore Agirrezabal. *Herri bibliotekan, 18:30ean.*

IURRETA Bakixako Jaiak

Meza Santua, 12:00etan. Bingo Herrikoia, 16:30ean. Jaiak agurtzeko suziriak, 19:00etan. *Bakixa auzoan.*



YLLANA

ELORRIO Antzerkia

Futbolak osatutako unibertso liluragarri eta kontraesankorrari buruzko satira da Yllana konpainiak Elorrioren taularatuko duena: *Gool*. Ikuskizun bisual, garratz eta zentzugabea. *Urtarrilak 16, barikua, Arriola antzokian, 20:00etan.*

EGUAZTENA 21

ABADIÑO Ipuinak

'Haizeak ekarritako ipuinak', Ines Bengoa ipuin kontalariagaz (4-8 urteko umeak). *Udal mediatekan, 17:00etan.*

IURRETA Berbaldia

'Bizkaiko abendu errondak'. Itziar Navarro Ibañezek bere doktoretza tesiaren aurkezpena egingo du. *Goiuria kulturgunean, 19:00etan.*

ZORNOTZA Berbaldia

'11 istorio eta laburmetrai bat' (Hizlaria: Jon Batiz argazkilaria). *Zelaieta zentroan, 19:15ean.*

BARIKUA 23

ABADIÑO Antzerkia

'Jo!' (Anduriña Zurutuza eta Beatriz Egizabal). *Txanporta kultur etxean, 20:00etan.*

DURANGO Eskulanak

Paperezko elektronika tailerra (Mabel de La Fuente). Bost urtetik gorako umeentzat. *Otamotzena auzogunean, 17:30ean.*

ELORRIO Ikuskizuna

'Izeba Txirrita'. Olatz Gorrotxategik sortutako antzezlan, 'Geuretik sortuak' ekimenaren eskutik. *Arriola Antzokian, 20:00etan.*

ZORNOTZA Musika

'Ahots Kordak' (Eñaut Elorrieta & Alos Quartet). *Zornotza Aretan, 20:00etan.*

ZAPATUA 24

ABADIÑO Musika

Magala. Haize Arrosa. *Errota kultur etxean, 19:00etan.*

BERRIZ Antzerkia

'Trajea' (Txalo Produzioak konpainia). *Kultur Etxean, 19:00etan.*

DURANGO Musika

'Glossaria' (Bogoroditsie Abesbatza). *San Agustín kulturgunean, 19:00etan.*

ZALDIBAR Musika

DJ Maratoia. *Gaztetxean, 22:00etan.*

DOMEKA 25

DURANGO Antzerkia

'Semaforoa' (Logela Multimedia). *San Agustín kulturgunean, 18:00etan.*

ELORRIO Antzerkia

'Carnaval de la vida' (Canti Vaganti konpainia). *Arriola antzokian, 17:00etan.*

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

Bob esponja. Una aventura pirata
Domeka 18: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

28 años después: el templo de los huesos

Barikua 16: 18:00, 20:30.
Zapatua 17: 16:30, 19:30, 21:30.
Domeka 18: 17:15, 19:30.
Astelehena 19: 18:00, 20:15.
Martitzena 20: 18:00, 20:15.
Eguaztena 21: 19:00.

El hombre menguante

Barikua 16: 18:00, 20:30.
Zapatua 17: 19:30, 21:30.
Domeka 18: 19:30.
Astelehena 19: 18:00, 20:15.
Martitzena 20: 18:00, 20:15.
Eguaztena 21: 19:00.

La asistenta

Barikua 16: 18:00, 20:30.
Zapatua 17: 18:45, 21:30.
Domeka 18: 19:30.
Astelehena 19: 19:00.
Martitzena 20: 19:00.
Eguaztena 21: 19:00.

Oilaskoerbi eta Marmotaren sekretua

Zapatua 17: 16:30.
Domeka 18: 17:15.

Zootropolis 2 (3D)

Zapatua 17: 17:00.
Domeka 18: 16:45.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

El extranjero

Zapatua 17: 20:00.
Domeka 18: 20:00.
Astelehena 19: 20:00.

Super Charlie

Domeka 18: 17:00.

GAZTETXEAN

Marco

Eguaztena 21: 19:30

OTXANDIO

KULTUR ETXEAN

Txilarreko sukaldaria

Eguena 22: 19:00.
(Liburua ere aurkeztuko dute).

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Rondallas

Barikua 16: 20:00.
Zapatua 17: 20:00.
Domeka 18: 20:00.
Astelehena 19: 20:15.

Bob Esponja. Una aventura pirata

Zapatua 17: 17:00.
Domeka 18: 17:00.

La receta perfecta (J.B.G.A.)

Urtarrilak 20: 19:00.





Alain Prieto, Abadiño Xake Taldearen egoitzan.

"Nire ibilbideko txapelketarik onena jokatu dut, dudarik barik"

ALAIN PRIETO ARANGUREN ABADIÑO XAKE TALDEKO XAKELARIA

XAKEA Espainiako xake txapelketan zortzigarren geratu da eta Nazioarteko Maisurako arau bat lortu du. Txapeldunorde geratzeko aukera izan du azken partidara arte

Joseba Derteano DURANGO

Alain Prietok (Durango, 1986) ogibide eta pasio du xakea. Xake eskolak emateaz gainera, urtean 150 bat partida jokatzeko dituzte, batez ere xake klasikoan. Abenduaren 15ean, Marbellan jokaturiko Espainiako txapelketan, sekulako maila eman zuen.

Zure espektatibak gaitzitu zituen?

Gutxi gaitzitu ditut. Nire bizitzako txapelketarik onena jokatu dut, dudarik barik. Rantingean 46. postu inguruan nengoan eta ez nuen espero. Ez nintzen ondo hasi, baina oso ondo amaitu nuen.

Alain Pichot xakeko Maisu Handiaren kontra jokaturiko azken partidaren txapeldunorde geratzeko aukera izan zenuen.

Bai. Irabazi beharra neukan eta berdindu egin nuen. Argentinarrak da bera, espainiar nazionalizatua. Oraintsu partida azka-

rraren munduko txapelketan aritu da, Magnus Carlsenegaz eta munduko onenekin. Nire kontrako partidaren arriskatu egin zuen, irabazi egin gura zidan, kosta ahala kosta. Mugimendu bat denbora luzez pentsatu zuen, berdinketa zela kalkulatu eta eskua luzatu zidan. Onartu egin nuen. Amaieran ordenagailuan kontsultatu nuen gure partida. Ikusi nuen nik ia ez nuela abantailarik izan partida osoan. Momentu batean peoi bi gehiago izan nituen, baina berak ondo jokatu gero, berdinketa zen. Ez dakit nire

"EZ DUT NIRE EGUTEGIA ALDATUKO. BIGARREN ARAUA LORTUKO BANU, AGIAN PLANTEATUKO NUKE"

meritua izan zen hainbeste eustea edo bere demeritua lehenago ez errematatzea, maila horretako xakelari batek irabazi egin beharko zidalako. Baina eusten jakin nuen, momentu batean ere ez nintzen behera etorri eta azken arte borrokatu nintzen. Pena izan zen. Txapeldunorde geratuz gero amaiera bikaina litzateke, nire bizitzan beharbada berriro geratuko ez den lorpen horietarikoa, oso maila handiko txapelketa da eta. Gainera, alde dago diru sarietan: nik 450 euro irabazi nituen eta txapeldunordeak 3.000 euro. Baina, tira, oso pozik nago zortzigarren postuagaz.

Teknologiak asko laguntzen dizue partidak prestatzen? Bai. Partidak prestatzeko zein jokaturikoak aztertzeko erabiltzen dugu. Orain ia inork ere ez du libururik erabiltzen. Li-

buruak ere digitalizatuta daude. Edozein neska-mutikok ordenagailua hartu eta ordu mordoan ematen du partidak aztertzen. Maila handia lortu daiteke etxetik irten barik. Informazioa askoz ere eskuragarriago izateak gaitasuna asko handitzea ekarri du.

Pichoten partida asko aztertu zenuen?

Bai. Kontua da azkeneko buruan nahaste handia neukala, datu basean Pichoten 5.000 partida inguru daudelako. Gainera, maila horretako xakelariak oso errepertorio zabala dute. Oso gatazka da nondik joko duten asmatzea.

Pichotek ere aztertuko zituen zure partidak.

Seguruenik bai, baina ez zuen hainbeste lan izango. Nire akatsik handienetarikoa bat da ia beti berdindu jokatzeko dudala. Aurreikusteko erraza naiz. Esaterako, ia defentsa beragaz jokatzeko dut 25 urtetik hona. Aurkariek badakite hori, eta horren arabera jokatzeko dute nire kontra. Ahalegintzen naiz gauzatxoak aldatzen, jakina. Baina behintzat ez dezatela jakin nire 22. mugimendua zein izango den, bestela galduta nengo. Nire errepertorioa hobetu beharra dut, baina adin batetik aurrera aldatzeak nagia ematen du.

Txapelketan lortu duzun garaipen esanguratsu bat Enrique Tejedorren kontrako da. Nazioarteko Maisua da eta Espainiako xake azkarreko txapeldun izandakoa.

Niretzat berdinketa lortzea garaipena zen, baina irabazteak konfiantza handia eman zidan gero zetorrenari aurre egiteko. Oso xakelari indartsua da. Segundo batean ikusten du nik ordu erdian ikusten dudana jokatzea. Banekien presio handia zuena, Maisu Handi araua zuelako jokoan. Lehenengo 20 jokatutakoak pentsatu barik egin nituen, azkar, bera nahasteko konfiantzagaz. Hain maila handiko xakelariaren aurka ez neukan gaitzeko ezer. Momentu batean berdinketa eskatu zidan, baina jokatzeko erabaki nuen eta

"TEJEDORRI IRABAZTEAK KONFIANTZA EMAN ZIDAN GEROKOARI AURRE EGITEKO"

ondo atera zitzaidan. Beltzekin jokatu Tejedorri irabazteko itzela izan zen.

Orain FIDE Maisua zara. Txapelketan Nazioarteko Maisu izateko arau bat lortu zenuen. Titulua lortzeko hiru arau behar dira eta 2.400eko ELOra heltzea. Helburu berri bat zabaldu zaizu?

Oraingoz ez dut nire egutegia aldatzeko asmorik. Bigarren araua lortuko banu, agian planteatuko nuke gehiago ikastea edo araurako baliagarriak diren txapelketetara joatea, baina momentuz ez. Izan ere, oso gatazka da Nazioarteko Maisu bihurtzea. Ez da nahikoa sekulako maila ematea; norbere esku ez dauden beste faktore batzuk ere badaude. Esaterako, Nazioarteko Maisu edo Maisu Handi kopuru jakin baten aurka jokatu behar duzu eta baita lau nazionalitate desberdinetako xakelarien kontra ere. Beraz, Open batera joan eta euren aurka jokatzeko egokitzeko ez bazaizu, alferrik zabilta. Openda irabazita ere ez duzu araua lortuko.

Nazioarteko Maisu asko dago Euskal Herrian?

Euskadiko azken Nazioarteko Maisua orain 30 bat urtekoa dela esango nuke. Bizkaian ez dago bat ere. FIDE Maisuaren kasuan, Durangon badago beste bat: Rodrigo Saralde. Bera ni baino hobea izan da beti.

Abadiño Xake Taldeagaz Ohorezko Mailako liga hasi zenuen joan zen asteburuan. Euskadiko maila nagusia da. Zein da aurtengo helburua? Mailari eustea eta ez sufritzea; eta Espainiako txapelketarako plaza lortzen badugu, ba hobeto. 2023an liga irabazi zenuten. Zelan gogoratzen duzu?

Mirari txiki bat izan zen. Leicesterrek Premier League irabazi zuenekoagaz konparatu daiteke. Ibon Martin, Unai Calvo, Jon Lagos eta laurok; etxeko lau xakelari atzerriarrek fitxatzen dituzten taldeen aurka. Itzela izan zen. Esaterako, aurtengo, Bilboko talde batek, iaz ozta-ozta salbatu zenak, hiru kubatar 'top' fitxatu ditu. Dirutza ordainduko diete, seguruenik. Bi-hiru talde kenduta, gainerakoek antzerako fitxaketak egingo dituzte. Oso gatazka da guretzat. Gure taldeari dagokionez, Manex Regillaga elorriarrek eta Markel Vesga legezpiarrek gugaz jokatu dute aurtengo. Azken horrek FIDE Maisua izatea lortu berri du.

Zaldaik 25. urteurrena ospatuko du Mendi Astean

MENDIA Urteurrenaren harira, '25 urte mendiz mendi' izeneko argazki erakusketa prestatu dute. Gainera, Zaldai mendi taldeko sortzaileei omenaldia egingo diete urtarrilaren 30ean. Mendi Asteak beste hainbat ekimen ere aurreikusten du

J.D. IURRETA

2026a urte berezia da Zaldai mendi taldearentzat, sortu zeneko 25. urteurrena betetzen delako. Horregaitik, efemerideak protagonismo berezia izango du aurtengo Mendi Astean.

Urtarrilaren 27tik otsailaren 1era *25 urte mendiz mendi* argazki erakusketa antolatu dute Goiuri kultur gunean. Erakusketa taldearen mende laurdenaren erakusgarri izango da. Urteurrenari loturiko bigarren ekimena urtarrilaren 30ean izango da. Mendi taldeko sortzaileei omenaldia egingo diete, 18:30ean, Askondoko aterpean.

Omenaldiaren egun berean iazko mendi erronkako sariak banatuko dituzte. Bestalde, aurtengo erronka martxan da dagoeneko. Txiki, gazte zein nagusientzat neurritan antolaturiko ohiko erronkaz gainera, Erronka Extra izango da 2026ko edizioako nobedadea, eremu bakoitzeko mendirik esanguratsuenak pro-



Zaldaiko mendi erronkako parte hartzaile batzuk. ZALDAI

tagonista hartuta: Araban Gorbeia, Bizkaian Anboto, Gipuzkoan Aizkorri, Nafarroan Hiru Erregeen Mahaia eta Iparraldean Orhi. Aipaturiko mendi hauek ohiko erronkarako igotzen dituztenek zein 5 mendi hauek

bakarrrik igotzen dituztenek oroi-garri berezi bana jasoko dute 10. edizioako sari banaketan.

Hiru emanaldi

Egitarauaren barruan, zenbait berbaldi eta dokumentalek har-

tuko dute lekua. Urtarrilaren 27an, Mikel Bringazek *Munduko ibilbiderik onena?* aurkeztuko du, mendi bizikletagaz Perun izandako ibileren inguruko ikus-entzunekoa; hilaren 28an, Mikel Lizarralderen *Zazpi, kontakizun bat, tontorrez tontor* izango da ikusgai. Dokumentalak Lizarralderen ibilbide pertsonala eta erronka esanguratsua kontatzen du: esklerosi anizkoitzaren diagnostikatu ziotenean hasi eta Euskal Herriko zazpi lurraldeetako mendirik garaienak lotzeko egindako 300 kilometro inguruko zeharkaldia. Azkenik, hilaren 29an, *Shukran, bizitzari mila esker* dokumentala eskainiko dute. Bertan, Maite Zumarragak eta Idoia Rubialek eskaladari eta abenturari lotuta egindako bidaiak jasotzen dira. Hiru emanaldiak Goiuria kultur gunean izango dira, 19:00etan.

Basatzan martxa solidarioa

Urtarrilaren 31n, Basatzan mendi bizikleta martxaren 9. aldia egingo dute. Izen-ematea hasita dago, *kirolprobak.com* atarian (8 euro). Egunean bertan ere egin daiteke, 12 euroan. Izena ematen duten lehenengo 150 klagunek buff bana jasoko dute opari. Ateratako dirua Angelman sindromea elkarteari emango diote.


Aurtengo ibilbidea berriztua dela aurreratu dute antolatzaileek. 28 kilometro ditu, eta 1.100 metroko desnibel positiboa.

Iker Fidalgo eta Oihane Irusta Euskadiko txapeldunorde

KROSA Euskadiko kros txapelketan Bidezabaleko hainbat korrikalari nabarmendu da

J.D. DURANGALDEA

Joan zen domekan, Euskadiko kros txapelketak lehiatu zituzten Ortuellan, eta Bidezabaleko ordezkariak emaitza bikainak lortu zituzten: Oihane Irusta abadiñarra eta Iker Fidalgo iurretarra txapeldunorde geratu ziren, maila absolutuan eta 20 urtez azpikoan, hurrenez hurren. Bestalde, Udane Barrondo hiru-garren sailkatu zen 18 urtez azpiko mailan, eta Eider Muñoz bigarren hautaketa-proban. Bidezabalek garaipen bi lortu zituen taldeka: emakumeen 16 urtez azpikoan eta gizonen 20 urtez azpikoan.



Fidalgo eta Irusta. BIDEZABAL



JOKALDIA

GOTZON GOMEZ BARRENETXEA ERRUGBIA

Errugbi hagen jatorria

Errugbi zelai batean sartzen garenean, hagen edo porterien tamaina zein itxura berezia izaten da deigarria egiten zaigun lehenengo kontua. XIX. mendearen hasieran errugbia asmatu zenean, zehazki 1823. urteaz geroztik, jokalariek aurkariaren entsegu-eremuan baloia lurrean pausatzea lortzen zutenean, horri entsegu gauzatzea esaten zitzaion, eta egindako entsegu gauzatzeke, baloia zutoin biek eta langak osatzen duten beheko karratuaren artean sartu behar zuten, futbol edo eskubaloia atea edo porteria balitz bezala.

Sasoi hartan, taldeentzat oso erraza izaten zen atea babestea aurkariaren entsegu lor ez zezaten, askotan jokalaria guztiak atepaen pilatzen baitziren aurkariaren lana oztopatzeko. Horregaitik, atea edo porteria alderantzizkatzea erabaki zuten, hau da, futboletik bereizteko, baloia langaren gainetik pasatu behar zuten, eta ez azpitik futbolean bezala. Beraz, zutoinek formak zerikusi handia izan zuen errugbiaren bilakaerarekin be-

rarekin. Langa bat eta zutoin luzeagoak eransteke ideia hasierako urte haietan football-rugby partidetan izaten zen gatazka konpontzeko irtenbide gisa sortu zen. Horrela, uste zuten errazago lortuko zutela gola egitea.

1871n idatzitako "Futbol Jokoa, Rugby Football Unionen erara" delakoaren lege edo arauetan hagen tamaina eta itxura deskribatzen da. Araudiak, 4. erregelari zehazten duenez, gol- edo arku-lerroa bi zutoin "zuzenez" osatuta egongo da. Horiek zorutik 11 oin baino gehiago (3,35 metro) neurtu beharko dituzte, bata bestetik 18, 6 oineko (5,67 metro) distantziara eta lurretik 10 oin (3 metro) ingurura dagoen barra batekin.

Gaur egun, zutoinen eta langaren funtzioa ez da aldatu. Talde batek entsegu bat egitea lortu duenean bost puntu eskuratzen ditu, eta bi puntu gehiago lortzeko aukera du, beti ere hiru zutoinen artean pilota ostikatzea lortzen badu. Beraz, entsegu baten osteko gauzatze-saioan baloia H horren goiko partetik pasatuz, bi

puntu lortzen dira, eta hiru puntu, berriz, baloia zigor-kolpe batean edo drop baten ostean pasatzen bada.

Azken urteetan, eta ikuskizuna bultzatzeko asmoarekin, entseguari balio gehiago eman zaio. Sasoi batean lau puntu baziren ere, gaur egun bost puntu lortzen du talde bakoitzak entsegu bakoitzarekin.

Jaurtitzaileren garrantzia ezinbestekoa bilakatu da errugbi modernoan, eta berme osoko jaurtitzaille bat izateak garaipen ugari ekar ditzake. Horren adibide ditugu azken urteetako izar disdiratsuenak: Jonny Wilkinson, Dan Carter, Beauden Barrett, Thomas Ramos, Johnny Sexton, Finn Russel edo Handré Pollard. Askotan, taldeak arauzko 80 minutuetan entseguak egin barik irabazten ditu partidak; horren adibide garbia azken Munduko Kopako Finala, non Andre Pollard hegoafrikarrak 12 puntuak lortu zituen All Blacksak 12-11 mendean hartu eta Munduko Kopa eskuratzeko.

GUARDIAKO BOTIKAK

URTARRILAK 16, BARIKUA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URTARRILAK 17, ZAPATUA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
URTARRILAK 18, DOMEKA
09:00-09:00
Irigoin, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URTARRILAK 19, ASTELEHENA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
URTARRILAK 20, MARTITZENA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
URTARRILAK 21, EGUAZTENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
URTARRILAK 22, EGUENA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritara edo deitu 946 232 523 telefonora.

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurra erekin batera.



GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozategia
@ gozatugozategia



MAÑARIA
Intza, Irati eta Igor
Zorionak **Intza, Irati eta Igor!**
Beste urtetxo bat urte hasieraz batera zuen urtebetetziekin ospatzen. Musu potolo bat inhar eta amaxon partez, ikaragarri maite zaittuegu!



BERRIZ
Lier Belerdas
Berriz bizi dan **Lier Belerdasek** 4 urte egin zituen abenduan. Zorionak bere anaia Gari, lehengosiña Izaro, eta batez ere amama Maribiren partez.



IRUÑA
Izaro Velerdas
Iruñan bizi dan **Izaro Argos Velerdasek** 6 urte egin zituen abenduan. Zorionak Berriztik lehengusu Gariren eta Lierren partez, eta batez ere amama Maribiren partez.



IURRETA
Iraide Iriondo
Urtarrilaren 11n gure aman urteguna izen zan. Zorionak familia eta lagunenez partez. Maite zaitugu!

OROIGARRIAK

URTEURRENA



Egoitz Uberuaga Aranburu
1986/1/13 - 2019/1/13



*7 urte pasa dira, baina gure bihotzean irribarez bizi zara.
Asko maite zaitugu.*

Etxekoak.

Mallabian, 2026ko urtarrilaren 16an.



Jose Ramón Urizar Zuñaga

Ikastolaren sortzaile eta bazkide laguntzailea

Zuek ereindako haziak ureztatzen jarraituko dogu, Jose Ramón, luzaroan loratu daitezana.

Eskerrik asko hainbeste urtean ikastolaren alde egindako lanagatik!





+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen



Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak

INMOBILIARIAK



ERAIKUNTZA BERRIA

AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **376.000 €**-tik aurrera.

ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B.**

AUKERA

Matiena: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E=E 140.000 €**

San Inazio: Garajea. **11.000 €.**

Alluitz: Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehia 2 kaletara. **110.000 €**

Abadiño: Gaztelua. Lursaila. 866 m2. Salgai. **29.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

KIRIKINO 87 m2. 5 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E=G 179.500 €**

MATIENA Trañabarren. 112 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela terrazarekin. Ikuspegiak. **C.E.E=F 230.000 €.**

IURRETA Dantzari. 79 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza. **C.E.E=E 150.000 €**

IURRETA Maspe. 100 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Ikuspegiak. **C.E.E= F 263.000 €**

Otxandio: ETXEA. 262 m2. 3 solairu. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B 165.000 €**

Mañaria: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. **C.E.E=E 250.000 €**

Juan de olazaran: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. Jantzia. **C.E.E=B 372.000 €**

Durango: Erdi-banatua. 340 m2. 6 logela eta 4 komun. Txokoa. 3 kotxerentzako garajea. **C.E.E=E 637.000 €**

Baserria, Zornotza: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 €.** **C.E.E=F**

Muntsaratz: Baserria. 670 m2. Familiabakarrekua. 500 m2-ko lursailarekin. **C.E.E=F 525.000 €**

LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Matiena: Laubideta. 365 m2. Alokairuan / Salgai.

Matiena: Trañabarren. 60 m2. Salgai, etxebizitzarako aukerarekin. **75.000 €.**

Durango: 100 m2-ko lokala. Alde zaharra. Egokitua. **115.000 €.**

Maspe: 150 m2-ko lokala. **90.000 €**

Komentukalea: 100 m2-ko lokala. Egokitua. **160.000 €**

Iurreta: Bixente Kapanaga. 117 m2-ko lokala. **75.000 €.**

Astepe: 40 m2-ko lokala. **70.000 €**

Askatasun etorbidea: 60 m2. Lokal egokitua. Kearentzako irteerarekin. **125.000 €.**



ETXEBIZITZAK SALGAI BERRIZ

Duplexa salgai. 4 logela, sukaldea, egongela, 3 komun eta 3 bainugela. garajea eta trastelekua.

DURANGO

Goienkalea: 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.

Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

Goienkalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna.

ATXONDO

Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

Abxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALEIAK SALGAI

Iurreta: Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeko.

Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**

Abadiño: Etkezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ

Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



MATIENA Trañabarren: 94,8m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela (horietako bik horma-armairuak dituzte) komuna, bainugela eta despentsa handia leihoarekin. Toldo automatikodun balkoia. Ikuspegi ederrak. 14,25 m2-ko ganbara. Garaje-partzela erosteko aukera.



MATIENA Trañabarren: 95,46m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 4 logela (horietako 3 horma-armairuekin), 2 komun, eskegitokia eta bainugela. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du. (iparraldea) Ikuspegi ederrak. 12 m2-ko ganbara.



ABADINO San Trokaz: 33,65 m2. Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.



BERRIZ Agirre Lehendakariaen pasealekua: 85m2. Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.



DURANGO Anboto kalea: 70 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. Iparraldea. Leku onen kokatuta. Zerbitzugueak. Berrikuntzak behar ditu. Igogailua. ITE-a pasatutakoa.



DURANGO

Andra Mari: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. **240.000 € / E.E:Z=E** igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero **270.000 €.**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

E.Bustintza Kirikiño kalea: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. **150.000 € E.E.Z=G**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharbertitzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

ATXONDO

Artekaldea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitzeko baserria lursailarekin. **LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €**

GARA

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Zubiaurre: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **198.000 € / E.E.Z=F**

GARAJEAK SALGAI/ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Kurutziaga: Garaje itxia **22.000 €.**

Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

Plateruen plaza: Garajea **25.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**

Antso Eztegiz: **45 € / hilean.** Motorrentzat egokia. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI/ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

Andra Mari kalea: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 / Alokagai: **800 € hilean / E.E:Z=E**

Komentu kalea: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. **65.000 € / E.E:Z=F**

San Martinpe Ataria: 12 m2-ko lokala. **25.000 € / E.E.Z=F**

Aliendalde: 285 m2-ko pabilioia. **250.000 €.**

IURRETA

Zubiaurre: 11m2-ko lokala. **20.000 €** negoziagarriak.

Mallabiena: 66 m2-ko pabilioia. Salgai: **105.000 € / Alokagai: 550 € hilean**

Beste aukera batzuk bulegoan galdetu



LAU-HORTZA

MARTA CALVO
LARRALDE

Gurpil zorora

Badira istorio batzuk errepikatzeko direnak, etengabe, hori da emakume zaintzaileen kasua.

Imajina dezagun emakume nagusi bat, zuen amama izan daitekeena, Maite jarriko diogu izena. Maitek seme-alabak hazi zituen, baita ilobak ere, baina bere garaian gutxi kotizatu zuen, neskame aritu zelako gehienbat; kontraturik gabe, noski. Senarra hil zenetik, alargun izateagatik pentzio bat jasotzen du. Maite asko ezagutuko dituzue.

Heldu da momentua eta orain zaindua izan behar du, baina lagunduko duen pertsona bat kontratatzea garestia da alargun pentsioa duen emakume baten zako.

Gizarte Zerbitzuetara jo, tramite guztiak egin eta ebaluaketa egitera doazenean galdera batzuk egingo dizkiote, hala nola ipurdia bakarrik garbitzeko gai zara? Kaletik zoazenean galdu egiten zara? Erantzuna ezezkia izanez gero, autonomia dela esango diote, ez duela laguntza eskatzeko eskubiderik.

Autonomiatik menpekotasunera doan bideak neurri zehatza dauka, 25 puntu.

Orduan, zer? Familiaren di-ruaren arabera. Gutxi badute, seme-alabak egingo dira kargu, ziurrenik alabak. Hobeto bada biltza, beste pertsona bati eskatuko diote lan hori; ziurrenik, kontraturik gabeko emakume etorkin bati, Fatimari adibidez. Fatimak ez du kotizatuko eta gurpilak biraka jarraituko du.

AKUILUA

"Egin ezin dudanean utziko dut dantza"

ENRIKE AGIRREBEITIA URTIAGA DANTZAZALEA

Pilotaren alde egindako lanagaitik da ezaguna. Hala ere, badu pilota beste maite duen beste zaletasun bat: dantza. Bihar, Durangoko Andra Mariko elizpean du hitzordua

Aitziber Basauri ZALDIBAR

Enrike Agirrebeitia (Berriz, 1950) pilota eta dantza artean bizi da. Lan nekaezina egindakoa da pilota bultzatzen Zaldibarren eta Durangaldean, eta dantzari fina ere bada. AIKO taldeagaz aritzen da, astero, Durangon. Dantzak sasoian egoteko aukera, lagun asko eta poza eman dizkio.

Pilotazalea ala erromeriazalea zara gehiago?

Pilota munduan naiz ezagunagoa. Baina biak asko gustatzen zaizkit. Dezente aritu naiz bietan.

Noiz sartu zitzaizun dantzarako harra?

Andikoan eliz-mutil nintzela ikasi nuen, 10 bat urteagaz. Arrosarioa amaitzean abadeak musika ipintzen zuen eta trikiti dantzak egiten genituen, dantza lotuan ez ziguten uzten eta. Askok dira han *nobio* egindakoak. Geroago, erromerietara joaten hasi nintzen, eta harrezkero jarraitu dut. Pilotan ere han hasi nintzen. 1959an eraiki genuen frontoia, auzolanean.

Askok aldatu dira erromeriak?

Lehen ordaindu egiten genuen erromerietan dantzatzeko, pezeta bat edo bi. Orratzagaz pegatina bat ipintzen ziguten pa-



"LEHEN ORDAINDU EGITEN GENUEN ERROMERIETAN DANTZATZEKO, PEZETA BAT EDO BI"

parrean, eta 6-8 piezagaz lau ordu egiten genituen. Geroago, Gogokoa, Pantera Rosa... dantzalekuak zabaltzean, herriko jaietan baino ez ziren egiten erromeriak. Orain, ordu eta erdian 20 piezatik gora jotzen dira, asko berriak: Zazpi jauziak, Txapelua, Lantzeko dantzak...

Horiekin ere ondo moldatzen zara.

Bai. Emaztea eta biok konturatu ginen atzean geratzen ari ginela eta badira 20 urte dantza horiek ikasten hasi ginela; Gerdiaga auzoan (Abadiño), Kristikitin dantza taldekoekin. Gero, AIKOGaz hasi ginen. Oraindino joaten gara, martitzenetan. Gaur egun lotsa handia dago dantza-irteteko. Arin-arina, fandagoa, pasodoblea... galtzen dabilta. Ikastera eta plazara irtetera animatu gura nuke jendea.

Dantza lotua ala trikiti dantzak?

Arin-arina eta fandagoa gustatzen zaizkit, apur bat narrastu egin naizen arren. Balsak, rantxerak... ere gustuko ditut, eta Zazpi jauzitan ondo moldatzen naiz.

Lagun taldea batzen zarete erromerietara joateko. Zeintzuk dituzue hitzordurik kutunenak?

Markiña ingurukoak, igual. Han mantendu dira gehien, garai batean lez. Durangaldean apur bat galdu dira. Hiru, bost edo hamar lagun joaten gara, baina emaztea eta biok bakarrik ere joan izan gara inoiz.

Zeintzuk dira urteko hitzorduak?

Elorrioko Gazeta auzoan hasten gara, Erregenetan. Gero, Eingo-ren jaia dugu Muruetan. Eta Durangon hilero egoten da Andra Mariko elizpean; bihar da, 19:00etan. Zarautzera, Mungiara edo Bilbora ere joaten gara.

Pilota partidu nagusia ikusi barik utziko zenuke erromerietara joateko?

Partiduaren eta plazaren arabera. Baina utzi dut partiduren bat dantzara joateko. Ona izan bada, biharamunean ikusi dut.

Noiz arte jarraituko duzu dantzan?

70 urte ipini nuen muga, baina egin ezin dudanean utziko dut. Lagunek zaharra naizelako baztertu arte jarraituko dut.

URRUN IRISTEKO, GERTU.

Zetoz eta ezagutu
Andramari
Zomatzako ikastola

ANDRAMARI
IRAKASLE BAKARRA

Larrea auzoa z/g 48340 Zomatz
94 675 29 50 - zomatz@andramari.es
www.andramari-zomatzako-ikastola.es



- 0tik 18 urtera arte.
- Bisita pertsonalizatuak.
- 2026/27 matrikulazioa: otsailaren 2tik 13ra.